

Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHERanzko bidea

Los Estudios diacrónicos vascos y el camino hacia el
Diccionario Histórico-Etimológico Vasco

Les recherches diachroniques basques et la voie vers le
Dictionnaire historique et étymologique basque

Basque diachronic studies and the way into the *Basque
historical and etymological Dictionary*

LAKARRA, Joseba Andoni
Euskaltzaindiaren EHHE egitasmoaren zuzendaria
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
joseba.lakarra@ehu.eus

Noiz jaso: 2021-01-10
Noiz onartua: 2021-03-20

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 1103-1164. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskararen Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE200)-ren argitalpena dela eta, haren helburu, oinarri eta ezaugarri nagusien azalpenarekin batean, euskal etimologia-ikerketen bilakabide eta egoera laburtu nahi izan dugu lan honetan, funtsean aurretiaz Bilbon (Euskaltzaindiaren Egoitza, 2019/07/03) eta Baionan (Euskal Ikasketen Fakultatea, 2019/10/08) egindako aurkezpenak bilduz.¹

Hara bere egitura: 1. Etimologia eta hiztegi historiko-etimologikoak. Etimologia zeri deritzo?; 2. Euskal etimologiaren historiaurrea; 3. Hizkuntzaren ustezko ahaidetasunen emaitzak (edo emaitza faltak); 4. Mitxelena paradigma: 4.1. Mitxelenaren oinarritzko sistema fonologikoa; 4.2. Mitxelenaren etimologia-jarduna; 5. Forma kanonikoa eta etimologia: 5.1. Zergatik eta nola aldatu Mitxelena paradigma?; 5.2. Erroaren Forma Kanonikoaz; 5.3. Lehen urratsak eta lehen emaitzak; 5.4. Forma Kanonikoa eta Etimologia Formala; 6. Metodoaren hedadurak: 6.1. Hasperena, etimologia eta berreraiketa; 6.2. Hitz-familiak eratuaz eta etimologia sendoagoak hedatuaz; 6.3. Gramatikalizazioa, lexikalizazioa eta etimologia; 6.4. Etimologia konparatua eta motibazioa; 6.5. Nola egin etimologia gehiago eta hobeak; 6.6. Kognatu sareak hedatuaz; 7. Emaitza eta ondorio zenbait; 8. Bibliografia.

Gako-hitzak: Diakronia, etimologia, filologia, etimologia formal, etimologia konparatua, forma kanonikoa, gramatikalizazioa, motibazioa.

En este trabajo, además de describir sus objetivos, fundamentos y características básicas, hemos querido sintetizar la situación y el recorrido del *Diccionario Histórico-Etimológico del Euskera* (EHHE 200). Para ello, hemos desarrollado lo expuesto en las presentaciones de Bilbao (sede de Euskaltzaindia, 03/07/2019) y Baiona (Facultad de Estudios Vascos, 08/10/2019).

He aquí su estructura: 1. Etimología y diccionarios etimológicos. ¿A qué se llama etimología? 2. Prehistoria de la etimología vasca; 3. Resultados (o falta de ellos) del análisis de hipotéticos parentescos del euskera; 4. Paradigma de Mitxelena: 4.1. Sistema fonológico básico de Mitxelena; 4.2. Actividad de Mitxelena en el campo de la etimología; 5. Forma canónica y etimología: 5.1. ¿Por qué y cómo superar el paradigma de Mitxelena?; 5.2. Forma canónica de la raíz; 5.3. Primeros pasos y primeros resultados; 5.4. Forma canónica y Etimología Formal; 6. Extensiones del método: 6.1. Aspiración, etimología y reconstrucción; 6.2. Familias de palabras; 6.3. Gramaticalización, lexicalización y etimología; 6.4. Etimología comparada y motivación; 6.5. ¿Cómo hacer más y mejores etimologías; 6.6. Ampliando las redes de cognados; 7. Algunos resultados y conclusiones; 8. Bibliografía.

Palabras clave: Diacronía, etimología, etimología formal, etimología comparada, filología, forma canónica, gramaticalización, motivación.

¹ Batean eta bestean izandako entzulegoaren galderak eta iruzkinak eskertzen ditut. Hemen laburregi ukitu edo atzunduriko hainbat alderdiz Lakarra et al. 2016ra eta, batez ere, Lakarra 2018a eta 2019a-etara jo liteke hala nahi edo behar izanez gero.

Dans ce travail qui décrit les objectifs, les fondements et les caractéristiques de base du *Dictionnaire historique et étymologique du basque* (EHHE 200), nous avons voulu faire une synthèse de la situation et des étapes des études étymologiques et historiques sur la langue. Pour ce faire nous avons développé les présentations faites à Bilbao (le 03/07/2019 au siège de l'Académie de la langue basque) et à Bayonne (le 08/10/2019 au Département d'Etudes basques).

En voici la structure : 1. Étymologie et dictionnaires étymologiques. Qu'appelle-t-on étymologie ? 2. Préhistoire de l'étymologie basque. 3. Résultats ou absence de résultats de l'étude de l'hypothétique parenté de certaines langues avec la langue basque. 4. Le Paradigme de Mitxelena : 4.1. Système phonologique de base de Mitxelena. 4.2. Activité de Mitxelena dans l'étymologie basque. 5. Forme canonique et étymologie : 5.1. Pourquoi et comment dépasser le paradigme de Mitxelena ? 5.2. Forme canonique de la racine. 5.3. Premières étapes et premiers résultats. 5.4. Forme canonique et étymologie formelle. 6. Extensions de la méthode : 6.1. Aspiration, étymologie et reconstruction. 6.2. Familles de mots. 6.3. Grammaticalisation, lexicalisation et étymologie. 6.4. Etymologie comparée et motivation. 6.5. Comment construire des étymologies nouvelles. 6.6. Sur l'élargissement des cognats. 7. Résultats et premières conclusions. 8. Bibliographie

Mots-clés : Diachronie, étymologie, étymologie formelle, étymologie comparée, forme canonique, grammaticalisation, motivation, philologie.

The aim of the EHHE200 has been to create the bases for the **Basque Historical Etymological Dictionary*, which we would like to complete at some point, as soon as possible, establishing for that purpose the most important details (modular, organised by family) and basic criteria (similar aspects of historical grammar's work). This project is, therefore, located at the point where diachronic linguistics and philology intersect and it is indebted to the beginnings and analytical developments of both. It would have been impossible to launch something like this if the "Mitxelena paradigm" in Bascology had not been advanced, if the search for the supposed origins of B. had remained in well-intentioned and limited amateur hands.²

² «Monumenta Linguae Vasconum. V. Periodización y cronología» [FFI2016-76032-P] Espainiako Gobernuko MINECO-k eta «Lingüística Histórica e Historia de la Lengua Vasca» [GIC. IT1344-19] Eusko Jaurlaritzak sustatuko Egitasmoen barnean egindako lana. Eskerrik beroenak aldizkariaren bi errebisatzaile anonimori eta lan hau asko txukundu duten Hizbea-ko lagunei, nahiz inoiz edo behin ez jarraitu haien iradokizunak eta baita Battittu Coyos eta Julen Manterolari beren zuzenketengatik.

Laburdura garrantzitsuenak: OEH = Mitxelena-Sarasola 1987-2005; AEM = Aitzineuskara Modernoa; AEZ = Aitzineuskara Zaharra; EBZ = Euskara Batu Zaharra; MEZ = Mendebaleko Euskara Zaharra; EHHE = *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*; FHV = *Fonética histórica vasca*; OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia*; FK = Forma Kanoniko; C = kontsonante; R = ozen; S = txistukari; T = herskari, V = bokal; E1 = Lehen errebisatzailea; E2 = Bigarren errebisatzailea.

In the M.'s paradigm and beyond that too, the practice of etymology is linked to “the best linguistic theory and most accurate philology”, as Meillet stated several times. The addition of the important necessary information required to make new constructions or update previous ones is limited or scarce: as the comparative method in Bascology spread, so the charms of frivolous kinship discoveries were long since exhausted, and, as M. pointed out half a century ago, because the benefits of rich and enriching research on borrowing were about to be exhausted, we have turned to a more accurate philological method and new analytical perspectives and had to do so if the field is not to perish in the future.

In this presentation, we have sought to demonstrate how the new directions in the general development of diachronic linguistics included here have influenced or can influence the study of etymology –as in more advanced traditions: i. e., the study and spread of the Canonical Root Form (§5), improvements in achieving Formal Etymology (§5.4) and Word Families (§6.2); Grammaticalisation (§6.3); Comparative etymology and motivation (6.4) –because that, typically, is where the main opportunity lies to make significant progress. Here, however briefly and by necessity, as well as mentioning all this, we have not of course overlooked the findings of those philologists that followed Mitxelena (cf. Lakarra 2019a) and, likewise, it was essential for us to complete and disseminate the underdeveloped strong-points of the previous paradigm (§6.1), after examining and recognising its main foundations (4.1) and strong rich points (4.2). In order to continue assembling and refining this *EHHE*, we have also included “How to do more and better etymology” (6.5), and “Extending cognate networks” (6.6), acknowledging its importance.

We selected 200 families (about 100 of them borrowed and an equal amount) from the native lexicon and joined them, although often new members had to be incorporated into some of the earlier ones –mostly from the native lexicon–, in order to be able to reveal still hidden kinships. In those 200 families, up to 2,600 entries and subentries have been collected, as explained in the introductory section of the *EHHE* by means of a description of the micro- and macro-structure.

Little of the analysis is wholly ours; nevertheless, none of it is merely taken or picked up completely from someone else. There are also many variants, chronologies, dialectal extensions, protohistories and formal or semantic details which are considered good or useful with etymologies... we have added the novelties and details of many aspects (especially in proto-history and the oldest periods), often until questioning or changing what many of us had taken as the “definitive” or “true” etymological analysis.

The *EHHE-200* is not, and we would not want the future **EHHE500* or **EHHE1000* to be, just a pretty ornamental but empty coffin of B. words. The *EHHE* is a tool with which to study the evolution of B. (to make a Historical Grammar of the language) and, therefore, it must be used provisionally rather than kept closed in its pretty wrapping. We have already made noticeable advances in the lexicon, phonology, morphology and diachronic dialectol-

ogy; that is what we would like to have done, at least. However, we think that even more could be done henceforth in the study of all these aspects and in the history of the language. That is what we find on the paths developed by our mentor K. Mitxelena, reconstructing and extending them.

Keywords: Diachrony, etymology, formal etymology, comparative etymology, canonical form, grammaticalization, motivation, philology.

1. Etimologia eta hiztegi historiko-etimologikoak. Etimologia zeri deritzo?

On ne s'attend pas à ce que la physique atomique de 1935 soit celle de 1983. Au contraire tous les étudiants de physique actuelle sont présumés savoir, et sont examinés sur des choses totalement inconnues aux plus grands physiciens du monde il y a 50 ans. Ce n'est que naturel, et il en est de même en linguistique. L'indo-européen actuel n'est pas à puiser aux livres, même ceux qui ont fait époque et dont la connaissance parfaite est indispensable, obligatoire. L'indo-européen actuel est dans les esprits de nos étudiants et nos auditeurs. Espérons seulement qu'il voie le jour, pour que nous puissions en profiter (Watkins 1984: 294; "fisika" eta "indoeuropea"ren ordez, irakur bitez "etimologia" eta "aitzineuskara").³

Berandu arte euskalaritza osoaren bibliografia gehiena hizkuntzaren "jatorriez" izan da, hitz hau "ustezko ahaidetasun teoriak" adieran ulertuaz. Bertatik datozkigun etekinak edozein aldetarik begiraturik urri edo ezerez dira, are urri eta ezerezago etimologia eta hizkuntzaren benetako historia-renetik, Traskek zuhurki markatu bezala (1997: §6) "bongo-bongo" izan baita horrelako aztertzailerek erabili duten ia metodo bakarra, eta ez ikerketa tradizio garatuetan duela azken 150 urteotan errota eta zabaldu historiko-konparatu estandarra (ik. zabalago §3n).

Hizkuntzen historiaren funtsezko alderdiak ezagutzeko hiztegi etimologiko eta historiko-etimologikoak komenigarri eta are beharrezko izan arren, ez dira noiz- eta nolanhiko egitekoak, amateur hutsen pare aritu nahi ez bada bederen. Sakontasunetan murgildu beharrik gabe, bistako da lanak ezinbesteko maila hori Mitxelena-ren paradigma barruan baino ezin lor ze-

³ Cf. "La investigación de la historia del vasco puede servir de modelo para el estudio de otras lenguas aisladas" (Campbell 2011: 38). Egile beraren *Historical Linguistics*en 2013ko 3. argitalpean erantsi atal batean –"§6.2.2. How can we advance knowledge of the history of language isolates?"–, barne berreraiketaz, berreraiketa konparatuaz, mailegaketaz, "gauzak eta hitzak" metodoaz, mundu osoko hizkuntzalaritza historikoko ikasleek eskura dezaketenaren adibide gisa, gure hizkuntzaren diakroniazko ikerketan azken hamarkadetan (gehien-gehiena K. Mitxelena-ri esker) lortutakoa da egileak aurkezten duen ia guztia (170-2).

zakeela gure artean, maisuak euskalaritza diakronikoan ezarritako oinarriez, filologiaren nahiz diakroniaren alorrean ekarri analisi aurrerapenez eta ikerketarako aurkeztu hipotesi, irizpide, ohitura eta tresnez baliatuaz. Hots, aurkezten dugun EHHE200 hau legezkoak soilik *Fonética Histórica Vasca* eta *Orotariko Euskal Hiztegian* gauzatu zen iker-sailaren eraldaketaren ondorengo izan litezke, bi mugarri erraldoi aipatzearren; bestela esan, hori dena ezinezko zatekeen, aurrekoak baino mehe eta ezezagunago baina haiek bezain funtsezko ditugun *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca* eta, bereziki, ororen oinarrian den *Lenguas y Protolenguas* gabe.

Egoera honetan –paradigma estandarraren abaroan “egonean goxo” jarraitu beharrean–, aurrera egin asmoz aurkeztu genuen gure egitasmoa 2009ko martxoan Euskaltzaindiak Urkiolan egindako XVI. Barne Jardunaldietan; ondoko urteotan ez EHHE osoa –1000 familia eta 6000-8000 hitzetik gorako, beste hizkuntza batzuetakoen antzeko hiztegi historiko-etimologikoa–, baina bai hori noizbait atondu ahal izateko abiapuntu eraginkor behar zuen izan gureak. Horretarako eta lehen urrats gisa, “100 bat hitzeta-ko prototipoa zeinetan honelako lan batek aurkezten dituen arazoez eskarmentua harturik zabalago horren muinaren zirriborroa izango dugun, mikro- eta makroegiturazko arazo nagusiak, horientzat ereduak, sarreren hautaketarako irizpideak, barneko diseinua, horietako azpiatalak betetzeko etxeko eta kanpoko bibliografia, etab. landu[ko ditugu]” genioen 2009ko txostenean.⁴ Ondoko plangintzetan, 200 familiatako egitura hartu genuen oinarritzko helburutzat eta hori ipartzat dugula aritu gara aldi honetan.

Ofiziokoen etimologia ez da hitz zenbaiten jatorriari buruzko interes handi edo exkaxeko anekdota bilduma, nahiz hitzok kultura, erlijioa edo bestelako alderdiren baten ikuspegitik merezimendurik handieneko izan (cf. Watkins 1990 eta 2000koaren sarrera). Aldiz, etimologiari dagokio gramatika historikoak hizkuntzaren eboluzio diakronikoa ikertzeko beharrezko duen zeinahi hitz eta forma linguistikotan gorde edozein informazioaren –foniko, morfosintaktiko, semantiko edo pragmatiko-kulturalen– azterketa. Azterketa eta azalpen hori, idealki, berreraiketa bidez eskura

⁴ Gai horietarik zenbait zehatzago aipatzen dira bilduma honetako J. Manterolaren txostenean.

genezakeen aitzinhizkuntza zaharrenetik lekukotasun modernoenetara hedatzen da (cf. Durkin 2009 bikaina). Hortaz, etimologiak hizkuntzalaritza historikoaren oinarri izaten jarraitzen du (cf. Watkins 1990, ofizioko gailur baten lekukotasun argigarria), eta haren azalpen edo garapen falta zuzenean loturik dugu berreraiketa eta diakroniari buruzko ikerketen egoerari. Hau, ordean, metodo historiko-konparatua ezartzerakoan hautatu eta jarraitutako oinarri, irizpide eta lekukotasunen azterketaren kalitatearen menpe (ik. Mitxelena 1950, 1956; Lakarra 1997a); halaber, unean-uneko etimologialariaren ezagutza, arta eta trebeziak ere baduke, segurki, zeresan aipagarririk.

“The term [etymology] is also used more broadly to describe the whole endeavour of attempting to provide a coherent account of a word’s history (or pre-history). As we will see in the course of this book, many of the basic methodological assumptions made in etymological research are the same regardless of whether we are looking at well-documented periods of linguistic history or at periods earlier than our earliest documentary records” diosku Durkinek (2009: 2) eta guk ere ez dugu uste funtsezko ezberdintasunik denik hiztegi etimologiko eta historikoen artean, “historiaren” eta “historiaurrearen” artean ez den (edo behar ez lukeen) bezala. Zorionez, *uniformitarismoa* gero eta hedatzenago da euskalaritzan ere, eta on litzateke ez nahastea ikergaiaren benetako natura, –bat eta bera aldi batean zein bestean–, eta hori miatzeko espezialistari sor dakizkiokeen eragozpen eta aukera hain ezberdinak, nahi lukeen bezalako lekukotasun corpora ez izatea, edota horren ezagutza sakonerako era guztietako prestalanak ere ez nahi lituzkeen bezain aitzinatuak aurkitu ezina, esaterako. Espezialisten artean historiaurrea nahiz historia analizatzeko erabilia metodo bera da, beraz, –historiko-konparatua–, hitz jakin baten garairik urrunenak zein arestikoak argitzeko.⁵

⁵ Lan honetan, bestela ere luzeegi eta, ezer gutxi esango dut guztiz ezinbesteko den filologiaren garapenez (eta horren faltaz); aspaldiko Lakarra 1997a-z landa, ik. Urgell 2000b bikaina garai bateko edizioetako ohitura bitxiez eta horren jarraipen eder den Zuloaga (2021), *EHHE200*-ko §§10-11 atalez landa, Regueroren (2020) Nafarroako testu zaharren bilduma. Zilegi bekit eranstea geroztik Bilbao eta gainerakoen Lazarragaren argitalpen berri osotuagoa eta Gómez & Zulaikaren Pomieren bikaina ere azkenik agertu direla eta inprimategirako bidean dela Ulibarrik prestatu-*rik* *Dotrinazko Sermoitegi* garrantzitsua ere.

2. Euskal etimologiaren historiaurrea

Euskarazko etimologiaren historiaurrea ia hizkuntzarena berarena edo protohistoria bezain luze da, hein batean. Alabaina, nahiz informazio interesgarria dugun, gutxienez, Goi Erdi Aroko *Izpea* ‘subtus penna’ edo *Aker Çaltua* ‘saltus hircorum’-ez geroztik, Iburguen-Cachopín Kronika (c. 1600) eta beste hainbat –larramenditar “bataioak” barne (cf. Urgell 2000, 2004)–, esan genezake K. Mitxelenaren eskutik eta haren lanen bidez sortu zela euskal etimologiaren garai zientifikoa. Segurki, 1950-70 baino lehen ere (hots, haren jardun etimologikoaren gailurraren aitzinetik) asko idatzi zen, –beharbada ondoko garaietan baino gehiago–, euskal hitzen jatorri eta bilakabideaz, baina kantitatea eta kalitatea ez zihoazen bat, inolaz ere. Aipatu 1950eko mugarri horren aurretik bada, izan, hainbat eta hainbat hurbilketa beste hainbeste euskal hitzen eta urliak edo sandiak une jakin batean euskararekin ahaidetu nahi zukeen dozenaka haietako anitzekin (ik. Mitxelena 1950, 1964, 1968; Trask 1997; Lakarra 1997a, 1999) baina oso bestelakoak dira batzuk eta besteak berehalakoan ohar gaitzkeenez.⁶

Mitxelena aurreko saio hits horietan zenbait euskal hitzek kaukasierazko, iberierazko, afrikar leinu ezberdinetako, paleosiberiar edo bestelako hizkuntzetakoekin lukeen ustezko eta axaleko antza da oinarri (aitzakia, hobe) kasu bakoitzean botatuko ahaidetasun aldarrikapenetan. Horietan bildu ohi dira gainerako tradizioetan zaletu eta amateurren lanetan markatu hainbat huts, akats eta bidegabekeria, metodo erkatuaren zorrotzasunetik urruti: forma modernoan eta zein aitzinhizkuntzatik datorren ez dakigun hainbat

⁶ Cf. Campbell 1988, 2013; orobat Blust 2015 austronesioaren ingurukoez, Blevins tonga-austronesioarekiko saio xelebre batekiko (cf. Lakarra 2018a horren iruzkin luzeago baterako). Itxaroten dut ez ni izatea hizkuntza erkaketarenean ere, bizitzako beste arlo batzuetan bezala, bakoitzaren aurrekariak ezagutzea ezinbesteko dela deritzon bakararra. Bakker 2020k ez dio berebiziko garrantzirik ematen puntu honi; “As I lack the detailed knowledge to assess the specific reconstructions, I will discuss a handful of ways to evaluate long-distance relationships” (575) eta “Thus, I have added a number of potential cognates to those presented by Blevins, without, however, working out the exact details of the sound laws, and *without being able to judge the quality of my sources. I will leave that to others*” (581) edo “As far as I can see (but I am not an expert in all of the areas, let that be clear)” (587) botatzen dituenarengan ez da harritzeko ere.

hitzen erabilera, maileguak erkaketaren alderdi batean edo bestean (are guztietan), morfema analisi ezohiko, trakets edo interesatuak, esanahi oker edo faltsuak, etab. (ik. Lakarra 2018a), Trask 1997ko “bongo-bongo”-arekikoak gainditzeke eta horretarako berariazko asmorik gabe.

Lan-deslan horretan ez ziren *homologiak* bilatzen, hain ezberdin eta hain deusez diren *analogia* hutsalak baizik;⁷ ordea, lehenak dira baliagarri soilik azterketa diakronikoan, loturik daramatzaten lege fonetiko, aitzinhizkuntz(ar)en berreraiketa eta erkatutako hizkuntzen historien ikerketa sakonak direla bide. Kontrako norabidean egindako saio hauen emaitzak, itxaron zitekeen legez, ezin etsigarriago dira, ez soil euskararentzat ahaideak bilatzeari dagokionez, baizik eta, batez ere, aldarri horiek guztiak agor eta antzu direlako haren egitura eta bilakabideaz eskain dezaketen (eskaini behar luketen) informazioari doakionez.

Areago dena –eta komeni da honen inguruan une batez gogoeta pausaztea, gertakari hau ez baitute ez batzuek ez besteek behar bezala ezagutzen ez aitortzen– euskal etimologiaren eta hizkuntzalaritza diakronikoaren antzinako ohitura “jator” hauek (paleolitiko ala neolitoko ote?) zailtasun eta oztopoak areagotzen dituzte lehen ere berankor, urri, asimetriko, ñabardura gutxiko eta, batez ere, gutxiegi ikertu eta behar bezain ezagun ez den corpuseko hizkuntzaren azterketan (cf. Lakarra 1997a, Ulibarri 2013), nahiz antzeko jardunak antzina baztertu eta atzendu diren tradizio diakroniko garatuetan (cf., esaterako, Dixon 1997 glotokronologiaz).

Ez da harritzeko 1953 aldera gertakari hauek eta bildu ahalko lireratekeen enparauko hainbatek salatu etimologia eta hizkuntzalaritza diakronikoaren egoera etsigarriaren aurrean, alor hauek askorentzat ez izatea erromanisten eranskin edo kolonia kulturala baizik –hitzak, badaezpada ere, Mitxelena-renak berarenak dira–, handik zein hemendik zetorkeen edozein “argitu” edo “xelebreren” menpe (ik. Mitxelena 1954c). XIXaren akabuan eta XXaren lehen zatian metodo konparatuaren aurkako heterodoxiak eta etsaigoak biltzen eta, bereziki, aitzinhizkuntzak ez direla hizkuntza historikoen jatorri aldarrikatzen duen ospe handiko hainbat ikertzaile (Schuchardt, Trombet-

⁷ Ikus *Lenguas y Protolenguas* hizkuntzalaritza historikoan erabateko den bereizkuntza horretaz.

ti, Uhlenbeck edo Tovar, ad., cf. Lakarra 2003 [2008]) ditugu korrante horren ordezkari nagusi euskalaritzaren esparruan. Horrenbestez, aipatuak eta beste kaxkarrago zenbait ere, *ahaidetasun* hitzari ohiko adiera sendoa kendu eta edozein garai eta tokitako hizkuntzak “ahaide” bilakatzen eta berdintzen saiatu ziren usu. Honelako hurbilketek –gehi bilatu ohi zituzten zehaztu gabeko sustrato eta familia bat baino gehiagotako kideekiko ahaidetasunek–, ezin ekar zezaketen benetako aurrerapenik, aldian aldiko zaratara noiz handi, noiz txiki lortzeaz besterik (cf. Trask 1997: §6, Gorrotxategi 2001, Lakarra 2003 [2008], 2018a); ik. §6.2n aipatu Geene eta van der Voort (Uhlenbeck tarteko) beste tradizio batzuek.

3. Hizkuntzaren ustezko ahaidetasunen azterketaren emaitzak

If we want to say, with Greenberg, that demonstrating genetic relationship does not require any kind of reconstruction, then I think it's appropriate to ask what the purpose of our genetic classification is. I believe that most historical linguists value the classifications because they help us find out about the histories of the languages in a family. We reconstruct parts of their common protolanguage and then use those reconstructions to study and compare the changes that have occurred in the various daughter languages. In other words, *to be useful to a historical linguist, a hypothesis of genetic relationship must be fruitful: a valid genetic grouping will permit reconstruction and thus lead to be a better understanding of the member languages and their histories. If a genetic hypothesis does not lead to new insights of these kinds, therein it is sterile and, within linguistics, useless* (Thomason 1993: 494; etzana nirea da [JAL]; bitxi da Bakker 2020-k aipu honen berri ere ez izana).

Zer ekarri diote euskararen diakroniaren azterketari euskarak hainbat hamarkadatan ahaide-bila jasandako erkaketa zenbakaitzek? Ezer ez. Hots, ezer on eta interesgarririk ez euskalaritzaren eta euskal diakroniaren helburuetarako; bai, aldiz, lan franko horiei aurre egiten eta atzerapen, oztopo eta luzamendu gehiegi alorreko benetako jardun eta egiteko probetxagarriagoe-tarako. Meilletek behin eta berriro aldarrikatu legez, halabeharra, «kasuali-

tatea», da hizkuntzalari historiko eta konparatzaileak bere jardunean (ik. Mitxelena 1963 zein de Lamberterie 1998) izan lezakeen arrisku eta etsai larriena, eta ezin bestelako atarramenturik itxaron oinarri ez helburu estandarrik gabeko erkaketa hauetarik.

Castaños (1979), Trask (1997) eta, bereziki, Agud eta Tovarrek (1988-95)⁸ ustezko kognatu edo maileguen zerrenda luzeak bildu eta inoiz iruzkindu ere zituzten, baina ez da horien artean euskararen egitura eta hauen bilakabide, irregulartasun edo iluntasunik nimiñoena argitzeko eta alorreko benetako ikertzaileen egarri handi ez txikirik asetzeko asmorik. Hizkuntzalaritza historiko-konparatua modu egokian garatu den ikerketa-tradizioetan gertatuaren aurka, euskalaritzan aipatu saiootan ez dugu, beraz, aurreko bibliografian markatutako benetako arazorik askatzeko urratsik. Ez jakin euskararekin erkatzen ziren hizkuntzen egitura edo bilakabidea argitu nahi ziren –ez dirudi, egia esan, eta auzokoez ere beren etxeetan guk gurean aurkitutakoa bera kausitzen omen–,⁹ ala egileen Egoei lagunarte edo txokoetan haize emateko trikimailu; hots, behin ere ez ditugu miraz eta esker onez aipaturik ikusten ustezko ahaide horiekiko ofizioen benetako ikerketetan (ad. kartveliko, uraliko zein berbererarekikoetan). Salbuespen bakan iberierazale zenbait bide da, agian iberierak tutik ulertu gabe jarraitzen

⁸ Leku faltaz ez ditugu aipatzen hemen “Mitxelena paradigma” aurreko edo landako Agud eta Tovarren hiztegi bukatugabea edo Morvanek Orpustanen laguntzarekin prestatutakoak, ezta –amaitu izan balu aurrekoetarik aski ezberdina izan zatekeen (Mitxelenaren lan sakabanatuak modu pedagogikoan aurkeztea zuen funtsean helburu)–, Trasken ia hasi-berritan utzi eta haren heriotzaz geroztik bestek sareratua ere. Nahi izanez gero horiezaz ikus litezke Lakarra 2003 [2008], Lakarra et al. 2016 eta Lakarra 2018a eta 2019a-etako oharrak.

Ezin argi eta egokiago dira Trask 1997ko azken ataleko iruzkinak konparazio saio ugarien balioaz, eta, bidenabar, haren iritzia ez da gurea baino hobea eta ez bide litzateke hobetuko ere gutxiegi ukitu ohi zuen etimologiaren alderdi filologikoa eta, oro har, euskarazko lekukotasunetik arreta zertxobait areagotu izan balu. Agud-Tovar eta Trasken bildumetako estandar (eta iturri) filologikoak zein diren ohartzea ez da zaila; konparatzaileenez hobe ez ezer esan. Ik. orain Ugartek (2019[2021]) dakarren lekukotasuna Mitxelenak Agud-Tovar hiztegiaren zuen iritziaz eta baita Gorrotxategi (2019) ere.

⁹ Ikus Lakarra 2018a-n Morvanen ustekizun eta jardunaz uralikoak dakitenek estali ez duten iritzi ezin okerragoa; ez bide zen garaiz iritsi aldizkari honetan bertan duela zenbait urte haren saio barregarria onartu zutenen ezagutzara. Chaker-ek dienez (1984: 241) espezialistek ez dute Mukarovskiyk berbereaz erabilitako lanabes eta irizpideetan fede izpirik.

duelako (ik. De Hoz 2010-11); ez da aditua izan beharrik gertakari honetarik datozen ondorioez jabetzeko, nagusienaz eta okerrenaz batez ere.

Teoria eta hipotesi horiek ez dituzte hizkuntzalaritza historikoaren eta gramatika konparatuaren hatsarre eta metodoak jarraitzen, hori hertsiki betetzea ezinbesteko den arren ahaidetasun zein sailkapen berri baterako edozein proposamen kontuan hartu eta egokituz izateko, eztabaida-gai nahiz kitzikagarri bilakatzeko. Baldintzok hainbatetan azaldu eta zedarritzatu dira, ez Hampen (1998: 13-5)-eko sintesi lan bikainean bezain egoki, ordea:

1. datuak ez dira erkatutako hizkuntzetan espezialistek aztertu eta onartuak;
2. adituek zein erkagaiak ama-hizkuntzat dituzten hiztunek datu horiek ez lituzkete analizatuko (ezta morfemak zatituko ere) saioetan behin eta berriz egin bezala;
3. egileok ez dituzte erabiltzen konparaketa baino lehen ongi finkatu datu eta analisiak edo –gutxiagorekin ase behar badugu– horiekiko diferentzia gramatikal eta kronologiko ezagun eta onartu eta ongi ezarriak;
4. erlazio genetikoak frogatuzat aurkezten dira, horiek formalizatu-ko lituzkeen zuhaitzak espezialistek ontzat eman aurretik, inoiz glotokronologiak eta konparaketa masiboak ohi bezala (cf. Lakarra 1997b eta Campbell 2013 beste askoren artean);
5. euskalariak ongi dakitenez, «claim» ugari aurkeztuaz ikertzaileen lanerako asti urria exkaxten dute, inoren okerrak bilatzera eta datu guztiak banan-bana miatu eta segurtatzera behartuaz: «The disassembly of illicit trees is a time-taking and potentially annoying business which displaces useful scholarly work»;

eta, azkenik,

6. «The dissemination of such extended claims gravely misleads the public, a public not equipped to test for such technical failures» (Hamp 1998: 15); hau ere ezagun eta usuko gure artean.

Atal honen amaieratzat nekez aurki liteke Mitxelenak 1954an Holmerri egin gutunetik hartu Boudaren metodoekiko ondoko paragrafoan zioe-

na baino egokiagorik; nago aipatu gainerako idazle gehienei ere aldaketa handirik gabe egoki letorkiekeela: “estoy plenamente convencido ahora de que una parte muy considerable de sus paralelos es errónea, y que esto puede demostrarse, que otra gran parte es absolutamente problemática, e incluso, que si alguna vez acierta, le ocurre esto por completa casualidad y a pesar de sus mejores esfuerzos para no conseguirlo” (Satrustegi 1997-99: 325-6).¹⁰

4. Mitxelena

4.1. Mitxelenaren sistema

D. Catalánek A. Martineten omenez Kanarietan argitaratu bilduma erraldoi baten barnean atera zen lehenik K. Mitxelenaren “Las antiguas consonantes vascas” (1957a), euskal ikerketa diakronikoen mugarri nagusietarikoa eta oraindik 60 urte geroago indarrean dirauen Aitzineuskara Modernoaren sistema fonologikoa –soilik kontsonantiko nagusia, zehatzago (ez bokalismoa eta aurrekoaren menpeko inbentario fonosinbolikoa)– postulatu zuen. Herskarien neutralizazio puntu eta modu bertaria hedatu zuen Mitxelenak ozen eta txistukarietara herskari zaharretarako Martinetek (1950) proposatu [+/- bortitz] oposaketa, haren hipotesia alde eta moldez, –argudio teoriko egokien nahiz zehaztasun filologiko jakingarrien bidez, alegia–, indartu ondoren (Mitxelena 1951, 1954a, 1973, etab.). Izan ere, hipotesia modu aljebraiko hutsean eraikia zen, egileak ohi bezala, datu interesgarri berri eta froga etimologikorik gabe, ez maileguetan eta ez ondare zaharreko hitzetan ere.

Mitxelenak hiru argudio-mota gehitu zizkion frantses hizkuntzalariarenei:

1. latineko eta erromantzeko maileguetako geminatuen bilakabide hain esanguratsua (*sabbatum* > *sábado* / *zapatu*, *peccatum* > *pecado* / *bekatu*, *cobdiçia* > *codicia* / *gutizia*),

¹⁰ E1-i probarik eman gabe gogortxo iruditu zaizkio Mitxelenaren hitzak Boudaz; probak, ordea, modu ezin sistematikoagoan bildurik ziren dagoeneko haren “De etimología vasca”n. Trasken ere (1997: 259) ez du galtzen horra bidaltzeko eta Boudaren jardunaz erabateko aurkako iritzia gehitzeko aukera.

2. [f]aren bilakabidea, /p/ nahiz /b/ren alofono izana, benetakoa [+/-ahostun] hizkuntzetan gertatzen denaren aurka, eta
3. grafia eta lekukotasun akitaniarren eta Erdi Arokoen analititik datozenak. Honela berreraiki sistema K.a. azken mendeetarako onartu zen, euskara eta latinaren kontaktua baino lehen eta horren hasierako garairako.

bortitzak t k ts tz N L R
 ahulak b d g s z n l r (gehi /h/)¹¹

Arkaismoari dagokionez, aitzineuskara XIX. mendearen azken herenean Luchairek, 1954an Mitxelena berak eta 1984tik aurrera Gorrotxategik aztertu menderen batzuk beranduagoko idazki akitaniarretako hizkerarekin (K.o. I-III) parekatu da usu, baina lilura horrek ezin iraun lezake bataren eta bestearen ikerketa garatuaz, –eta tarteko 500 edo 1000 urteko etena beratuaz eta argituaz–, doan neurrian.¹²

FHV (1961), egileak 1959an aurkeztu tesiaren bertsio zuzendua dugu, eta izan zuen egilearen bizian bigarren argitalpen berriztatua ere (1977), atal guztietan hainbat ohar eta gehiketa eginaz, bereziki gehien landu zituen azentu eta hasperenketarenean. Edizio berrian ez da sartzen, aldiz, leheneko “Resumen del consonantismo” gogoangarria, zeinetan iradokitzen den *bortitz ozen eta txistukariak* ez ziratekeela berezko, C-taldeetarik sortuak baizen, nahiz egileak ezin garatu ideia hau hor zein ondoko lanetan frogatzea (= etimologia) faltaz, berak aitortu legez. Froga horiek lau bat hamarkada geroago hasi ziren agertzen, CVC erroaren forma kanonikoaren ezagutzarekin, alegia.

¹¹ Hainbat tokitan zehaztu bezala, “debemos suponer, pues una pronunciación aspirada de las oclusivas fuertes” (Mitxelena 1957a: §9); barnekoak hasperenik gabe baina luze; hortik latinetikoa mailegutan geminatu ahostunak nahi ahoskabeak horien bidez ematea euskaraz testuan azaldu bezala. Bidenabar, ez bide zen leku-faltaz edo gelditu aztertu gabe bokalismoa Mitxelena sistemaren laburpenean; alderdi horretan egoera historiko nagusitik oso atzerago joateako zailtasunak behin baino gehiagotan aipatu zituen (cf. *FHV* 47, etab.), diptongo gehien ahuleziak eta berritasunaz gainera.

¹² EBZren inguruko azken urteotako interes eta emaitza ugari eta aberatsagoek ere lagundu ahal dute bide berean; cf. Gorrotxategi 2018 bilduma ederra eta Ariztimuño 2011 akitanieraz gehi Lakarra 2018a eta (prest.-b) AEZ eta AEMz; EBZz Lakarra 2014, Urrestarazu 2021 horren zatiketaren alderdi zenbaitez eta Zuloaga 2020 MEZz.

Mitxelenak bere jarduna ehunkadaren erdi-erdian hasia zuen eta hasi ere zerekin eta “Notas de gramática histórica vasca” (1949) eta labur baina alorrerako iraultzaile eta mugarririk gertatu “De etimología vasca” (1950)-ekin. Aukeraren arabera eusko-kaukasista, eusko-uraloaltaista, eusko-paleosiberianista edo eusko-mundialista zen, –ondoko Bengtson eta besteren aitzindari–,¹³ Boudaren artikulu batzuek zirela eta idatzi zuen bigarrena, nahiz eta aipatu gabe beti (neogramatikoko jator bezala) etsai nagusi zuen Schuchardti zuzendurik. 50 eta 60ko hamarkadetakoko beste hainbat lanetan eta are 30 urte geroago hil ondoko 1987koan Mitxelenak azaldu zituen berreraikitzaile, hizkuntza historialari eta etimologo gisa zituen irizpide eta hatsarreak, eta, usuenik, bere eta Meilleten ondoko hizkuntzalaritza historikoko estandarren jardunarekin aurreko euskalaritzak (neurri handi batean Schuchardten erruz) zituen ezberdintasun handiak ezkutatu gabe (1957b: 108). Baina, hurrenez hurren, berreraiketa teoriaren harribitxi eta euskararen azterketan horren aplikazio paregabe diren *Lenguas y protolenguas* (1963) eta *Sobre el pasado* (1964) bikainetara jo behar bereziki, FHVrekin batean Mitxelenaren lanaren hiruko nagusira hurbiltzeko (cf. Gómez 2013, Gorrotxategi 2013).

4.2. Mitxelenaren etimologia-jarduna

Berrogei urtez ezin utzizko izan eta gaur arte benetako hiztegi etimologikoko batetik edozein baino hurbilagoko Arbelaizen tesinarako (1978) bilketa-lan

¹³ Bengtson, Trask 1997ko azken ataleko eta beste iruzkin monografiko batzuetakoak aski dira... nahiz hark oraindik ere lehengo lepotik izan burua: “As one who has been seriously investigating the genetic classification of the Basque language for the past two and a half decades...” hasten da hark Forniri egindako iruzkina (2013, JIESen onartu eta argitaratua!) eta hurrengo urtekoa (hau *Journal of the Association for the Study of Language in Prehistory*-n, hori bai), “The hypothesis explored here, that the mysterious and ‘isolated’ Burushaski language of the high mountains of Pakistan is genetically related to Yeniseian, North Caucasian, and Basque (and more remotely to other Dene-Caucasian languages)...” eta “Cultural vocabulary shared by the same languages, including words for domestic sheep and goats, dairying, cultivated grain crops (and processes connected with them), and for other artifacts, suggests that the speakers of the proto-language ancestral to these languages (Euskaro-Caucasian or Macro-Caucasian) dispersed as early as 7000 to 9000 years BP in association with the spread of animal domestication and the cultivation of grain” amaitzen. Astirik (eta eroapenik) izanez gero bada non eta zerez ase.

onuragarriaren arabera, Mitxelena 1400/1500 etimologiaren sortzaile litzateke.¹⁴ Etimologia horiek dira euskal gramatika historikoaren oinarri: noiz kog-natuen bidez lege fonetikoaren adibideak biltzen dituzte (*-n- > -ø- : *ardo* : *ardan*- ‘konposizioko forma’ :: *balea* : *balen*-, etab.), eta noiz lekukotasun zahar berreskuratua dakartza (akitanierazko zein Erdi Aroko, Euskara Arkaikoko nahiz hizkera moderno atzendu bateko) edo *bazkari* < *pascuarium* bezalako Schuchardten etimologia ezinezkoak desegin eta analisi berrien beharra aldarrikatzen zutenak: cf. *barazkari* < **baratze-hari*; inoiz esanahiak eta aurreko analisiak zehazten ditu... eta, oro har, *LyPL* eta *SPLVn* hobetsi bezala, forma arkaiko, hedatu eta informatiboagoen aldekoak eraikitzen.¹⁵

Mitxelenaren etimologiaren oinarriak bikoitzak dira: antzinako konposatu-eratorpenen analisia eta lehenagotik hainbat ikertzailek aztertu maileguena. Alabaina, hark burutu maileguen azterketa aurrekoena baino askoz finago da, Martinetengandik baina baita Bloomfield, Jakobson eta enparauengandik hartu fonologia estrukturalista eta diakronikoari eskerrak. Maileguak zabal eta xehe aztertzeak, –ik. 1974ko data daraman baina 10 bat urte lehenagokoa den “El elemento latino-románico”–, ezinbestean dakar haren berreraiketa sistema, ez barneberreraiketa soil, baizik eta “mixtotzat” (barneberreraiketa + maileguen azterketa) hartu beharra. Gogora bedi aski dela morfemak eurak kognatu izatea berreraiketa “konparatua” izan dadin, nahiz horien hizkuntzak ez izan ahaide (cf. Mitxelena 1964n proposatu eusk.-albaniera erkaketa, adib.).

Menéndez Pidalen *Manual de gramática histórica del español*-en eta *FHV*-n diren maileguen gainean eratu etimologia eta lege fonetikoaren kopuruak erkatzean ohartzen gara holakoak *FHVn* 10-20 bider gehiago direla; zail da aurkitzen orrialde oso bat mailegu latin-erromantzezkoren batez –eta hortik abia-

¹⁴ Askoz gehiago dira *FHV*ko bi zerrendatan bildu 1961 eta 1977ko edizioetan aztertuak (4200 inguru 1.aren aurkibidean eta 540-edo 2.arenean, hainbat behin baino gehiagotan); ugari dira *Apellidosekoak* ere, gainerako laburragoetakoak ez aipatzearren. Obra Guztien edizioeko XV. liburuan are gehiago, nahiz honetan bildu iruzkinak era guztietakoak izan, ez soilik etimologiko edo hizkuntzazko, hertsia-hertsian.

¹⁵ Ikus Mitxelena (1963: 14hh) arkaismo eta berrikuntzen edo alomorfo zahar eta berrien artean bereizteko irizpidetaz. Hertsia-hertsian barneberreraiketa soilik morfemen irregulartasunen gainean egina da, ez dialekto ezberdinen erkaketaren gainekoa, hau konparaketatzat hartu ohi baita ofizialkoen artean (cf. Ringe 2003).

tuaz ondare zaharreko berben eboluzioaz, noski– oharririk eta azterketarik ez duenik. Ez da horren parekorik gaztelaniaren edo gainerako erromantzeen gramatika historikoetan, ezta latinaurrekoei germaniko, arabierazko edo beselakoak gehituaz ere.¹⁶ Beraz, maileguren bilaketa ezin utzizko lana izan zuen Mitxelenak, *FHV* aitzinetik batez ere, baina baita ondotik ere. Haien berebiziko garrantziagatik, hain zuzen, Tovar eta beste aitzindariak baino irizpide eta iragazki hertsia goen alde egin zuen, batez ere urrutien –berreraiketa estandarrek baino milurteko erdi atzerago edo– eraman gintzaketen latinaurreko geruzen azterketan. *Sobre el pasado* (1964: 48) ondokoak aipatzen dira gainditu beharrezko baldintzat: 1) deribazio fonetiko eta semantiko egokia; 2) indoeuropartasun segurua; 3) erkaketak hitz osoen artean izatea, ez hitz eta erro edo erro eta erroen artean, 4) IE hitzak izateaz landa, euskararekin kontaktuan segurtasun osoz izandako dialekto IEren batekoak izatea, 5) euskarara zuzenean iristea ez latinaren eta erromantzeen bidez, bestela horiek ez baikenituzke zeltatikoak, *zapatu* latinetikoa dugun bezala eta ez semitikoak.

Baldintza hauek ustezko emaitzei ezartzean, haietarik oso gutxi diraute eta urri horiek dira, izatekotan, latinaurreko IEtik edo zeltatik euskarak hartu mailegutuz jo litezkeenak (cf. Gorrotxategi 1987). Mitxelenarengan biltzen dira –Meilletek (1925) konparatista (hots, diakronista) bati eskatu bezala– hizkuntza teoria garatuena eta momentuan eskura zitekeen filologiarik hobereena. Azken honi dagokionez, hark zuen lekukotasunen ezagutza –aurreko eta ondoko edozein euskalariena baino sakonagoa, inola ere– akitaniar onomastikari (1954a), Erdi Arokoari, RS-i (1954b) edo Oihenarti egokitu azterketa bikainetan gauzatzen da, eta baita, halaber, Betolatzaren dotrina, *Viva Jesus*, TAV edo Landuccioren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae*-ren argitalpen txukun eta beharrezkoetan, 50eko hamarkadaren bigarren zatian: DLC-renak, bidenabar, dialektologia diakronikoarekiko ikerketak aldatu zituen erroetik. Ez zituen argitaratu gabe utzi Bonaparteren hainbat eskuizkribu edo

¹⁶ Lakarra 2012n erakutsi legez, jokabide hau oso berezia da Europako alderdi honetan; cf., hain zuzen, Mitxelenak gogoko zuen Jackson 1953, zeltak hartutako maileguren azterketa sistematikoaren bidezko historiaurrearen berreraiketa. 2012an aipatu hausa, bereber, komantxe eta gainerakoek landa erants bedi mailegu germaniko eta bestelako erabilera suomiera eta samieraren historiaurrea argitzeko; ik. Aikio eta Kallioren lanak bibliografian, adib. Orobat, ik. Irwin 2011 monografikoa eta Frellesvig 2010eko oharrak japonieraz.

hark berak zuzenean bildu materialak ere, are hiltzear zen Erronkariko dialektoarenak (Mitxelena 1954d, Mitxelena et al. 1953). Are bere azken urteetan ere (cf. Mitxelena 1981b-c) grina berezia erakutsi zuen filologiaren langa goian markatzeko eta errazkeriak deuseztatzeko eta horretarako inorentzako akuilukadez landa, bere kabuz landutako harribitxiak (1986ko “Contra Leko-bide”) eta are benetako testukritikazko saio arriskutsu bezain harrigarria ere (1984 “Ad experiendum”) ere eman zizkigun.

Aipagarri da Mitxelenak 50eko urteen erdialdera abian jarri Azkueren hiztegiaren zuzenketa; izan, hori zen hasierako asmo edo jasotako mandatua, baina epe motzean oso bestelako hedadura eta maila eman zion, hazten eta garatzen zihoalarik 1984az geroz erakundeen laguntzaz *Orotariko Euskal Hiztegia* abiatu arte. Mitxelena 1987an hil eta hilabeteren bat geroago atera zen lehen liburukia, eta I. Sarasolak zuzendutako taldeak amaitu zuen hamaseigarrenarekin papereko edizioa (2005); geroztik, aldiro errebisatuaz doa Gabriel Frailerren eskutik, 2019an seigarren edizio elektronikora iritsiaz. *OEH*, izan, ez da benetako hiztegi historikoa eta are gutxiago etimologikoa, baina euskarazko beste edozein baino hurbilago da *desideratum* horietatik, euskal testu-tradizioa Azkuerenean zein beste edozeinetan baino askoz hobeto ordezkatuaz, zalantzarik gabe. Bidebatez esan dezadan, Mitxelenaren asmoak hiztegi horren inguruan ulertzeko ezinbesteko dela haren *Estudio sobre las fuentes de Azkue* (1970 [1965]), zeinen zordun diren lexikografia zaharraren azterlan guztiak (ik. Lakarra 1993, Urgell 1997, 2000, etab.).¹⁷

5. Forma Kanonikoa eta Etimologia

5.1. Zergatik eta nola aldatu “Mitxelena paradigma”

Azalpen egokiak emanez eta hizkuntzalaritza diakronikoaz ikerketa berriak sustatuaz eta alternatiba ezagunik gabe mende erdiz edo gehiago gara-

¹⁷ Liburu hori, agian, egokiago dei zitekeen *Fuentes del Diccionario de Larramendi*, nahiz atalen bat Azkueri berari egokitu, izan ere Larramendik euskal tradizioan izandako eraginak merezi bezala hari esleitu baitzion zatirik handiena. Ikerkizun hori eta beste asko, zabalago, B. Urgellen tesian (2000) eta egile horren aurreko eta ondoko hamarkadetako euskal lexikografiaren historiari lotutako hainbatetan aurki liteke.

tu den eta oraindik ere dirauen Mitxelena paradigma aldatu behar dela esatea ez bide da erraz ulertzen eta ez azaltzen.¹⁸ Gogora dezagun M. Haasek (1969) berreraiketak eta aitzinhizkuntzak aldatzeko eman zituen lau arrazoi eta bide ezagunak, funtsean, bitara bil litezkeela: 1) datu eta froga gehiketa, a) dela hau ahaide zuzenak aurkitzeagatik, b) dela tarteko aitzinhizkuntza berriak eraikitzea lortuaz, edo c) mailegu zahar gehiago aurkituaz; 2) teoria edo hurbilketa berriak garatuaz hobeki, lehendik ezagun ziren corpus berberak aztertzeko edo arazo zaharrei egokiago erantzuteko.

FHV ondoko euskararen ahaidetasunak bilatzeko saioek ez dute aurrekoek baino emaitza hobetik izan eta, beraz, Mitxelenak duela mende erdi markatu bezala latinetik eta erromantzetiko maileguen lekukotasuna agortuxea izanik, bigarren bidea jarraituaz, lehendik ezagutu lanabesak hobeki aztertuaz eta hurbilketa berri sakonagoak garatuaz beharko dugu aurrera egin berreraiketan eta etimologiagintzan:

Es evidente que, en materia de etimología, estamos cerca, demasiado cerca, de un límite: el de la accesibilidad de los medios actuales de reconstrucción. (..) Queda la esperanza de la publicación de materiales nuevos, que tiene que haber, [...] que darán nuevas luces: queremos en lo posible, hacer historia, no prehistoria lingüística. *Queda también la posibilidad de cambiar de ojos, de conseguir por un esfuerzo mental que lo familiar dado por supuesto se convierta en extraño y necesitado de explicación.* (Mitxelena 1970: 308; etzana geurea)

“Begi (edo buru) aldaketa” hori baino lehen, ordea, komeni da aipa ditzagun aurreko paradigmaren berreraiketa eta etimologia aztertzeko zenbait arazo: a) kronologia falta du; b) ez du sistematikoki bereizten AE eta EBZ, haren 1981eko “Lengua común y dialectos vascos”-ez geroz behar bezala (cf. Lakarra 2014); c) fonologiaz arduratzen da ia soilik, nahiz *FHV*n eta hainbat lanetan iruzkin eta emaitza morfologiko interesgarriak izan; d) bere

¹⁸ Lakarra (1997b)-n Mitxelenaren AE berreraiketako herskariaren azpisistemarekiko Trask (1985) eta Hualde (1997)ren alternatibak kritikatu ziren; beren kronologia oso berankorrez landa, ez bata ez besteak ez baitu Mitxelenaren etimologia bakar bat gaindi lezakeenik eskaintzen eta, beraz, nekez hobets daitezke. Ikus, halere, §4.2n /f/-aren jatorriaz Hualdek egindako aurrerapeanak; orobat, arestiko Egurtzegi eta Ariztimuño (2019).

aurkikuntza ugari eta sakonen sistematizazio eta hedadura falta zaio, adib., 1961eko “kontsonantismoaren laburpena” delakoan aipatu bortitzen sorreraz edo hor bertan *l-n* ondoko herskariez aurkeztutako alternatiba; e) hizkuntzaren tipologia modernoa inplizitoki betidanikotzat hartzen da, Trask 1998ren parera [baina cf. Trask 1977 !!] iritsi gabe, halere; f) ez da forma kanonikoa analisi-irizpide edo lanabestzat hartzen;¹⁹ g) usuenik etimologiaren motibazioa falta da.

Halere, IEn edo gainerako tradizioetan bezala, berreraiketen polimorfismo (ia) erabatekoa –monosilabo, bisilabo eta (askoz urriago) polisilabo; V-z zein C-z hasi edo amaitu, CC talde ezberdinak edo ez erdialdean...– mugatzeko orduan dugu ikusten hurbilketa berri baten beharra (cf. Lakarra 2003 [2008]). Badirudi 1950-90 garaiko euskal etimologiari egokitu ahal zaiola, aldeak alde baina aldatu-behar gutxiarekin, Benvenistek bere garaiko etimologia indoeuroparrak esana:

Ce qu'on a enseigné jusqu'ici de la nature et des modalités de la racine est au vrai, un assemblage hétéroclite de notions empiriques, de recettes provisoires, de formes archaïques et récentes, le tout d'une irrégularité et d'une complication qui défient l'ordonnance. (1935: 147-8)

5.2. Paradigma berriari buruz: I. Erroen Forma Kanonikoa

IEz eta semitikoz aspaldi, austronesioz gero eta oraintsuago uralikoz, bantuz, dravidikoz, kartvelikoz nahiz txineraz edo tibeto-burmeraz, japonieraz zein beste zenbait familia eta hizkuntza diakronikoki garatuta gertatuaren aurka, ez da erroari buruzko lan samaldarik euskarazko ikerketetan, ez sinkroniko eta ezta diakronikoetan ere, argiro gutxietsiz analisi-esparru honen

¹⁹ Mitxelenaen etimologia zenbait ez dator bat berak (1979) iberierazko eta euskara zahararen erroarentzako eman FK bisilabikoarekin eta usuenik (cf. **enazur* > *azur* / *hezur*, **ardano*...) ezin izan litezke inongo analisisaren amaiera (ezta bere hatsarreen gainean ere) sakonago baten aldarri baizik. Bestalde, azterketa monografikoa merezi lukete mailegu (*alu*, *alha*) zein ondare zaharrekoetz (*adar*, *mando*, *erbi*, *ahitu/akitu*, *golde*, *sendo*) egindako analisi gehiegizkoek; ik. EHH200 s.u. eta Lakarra 2020a-ko zenbait adibide.

garrantzia hizkuntz azterketarako.²⁰ Uhlenbecken erroarekiko hurbilketa (1942) euskarak omen zituen geruza-osagai ezberdinak erakusteko ahaleginaren barnean kokatu behar da. Egileak argiro aldarrikatu bezala, gurea “hizkuntza misto”-tzat hartzea ez zen apartekoa harentzat... Trombetti, Schuchardt, Boas edo Tovarrentzat ere ez bezala (ik. Lakarra 2003 [2008] eta gehi bekizkio Geene 2003 eta van der Voort 2009, Uhlenbecken lan algonkiar, indoeuropar eta eskimo-auleutiarretako hurbilketa beraren paralelo argiekin).

Lafonek euskal erroari buruz argitaratu ohar laburretan (1950), bere tesiari (1943) eta Uhlenbecken artikuluko garrantzitsuan esana gogoratzen bazuen ere, erro hori zehazteko oztopoak gainditze aldera, berarentzat *ultima ratio* zen konparazio euskara-kaukasikoaz landa, ez zen bertan ageri berre-*ratio* sakonagoa lantzeko esperantza handirik:

Pour avoir du verbe basque une connaissance satisfaisante, il faudrait joindre à la connaissance de son système celle des rapports de forme, de sens ou d'emploi que certaines racines ont pu avoir entre elles, c'est-à-dire la connaissance de l'histoire et de la préhistoire des racines (Lafon 1943: I, 433).

B. *Racines simples*. Les racines simples du basque se composent d'une ou de deux syllabes. Les types suivants se rencontrent :

1° RACINES MONOSYLLABIQUES : a) une voyelle : *a-* “ être ” ;
b) consonne et voyelle : *go-* “ rester ”, *gi-* “ être fait ” ; c) voyelle et consonne : *bil-* “ marcher ”, *kus-* “ être vu ” .

2° RACINES DISSYLLABIQUES : *oa-* “ aller ” ; *augi-* “ venir ”, *aki-* “ être su ”, *zagu-* “ être connu ” (Lafon 1943: I, 421).

Un nom basque, s'il ne contient aucun préfixe ou suffixe connu et dont la valeur soit nette, ne se laisse généralement pas analyser; ou, plus exactement, on ne possède aucun moyen direct de l'analy-

²⁰ Hala markatu genuen dagoeneko Lakarra (1998)n. Indoeuropeaz ik. bedi soilik Gamkrelidze-Ivanov 1984, ia edozein eskuliburuz landa, baita Gorrotxategi (2019) ere, orobat semitikoaz. Austronesioaz Blust 1988 eta 2009 ikus liteke eta uralikoaz Bakrò-Nagy 1992, bantuz Teil-Dautrey 2008, dravidikoaz Krishnamurti 2001, kartvelikoaz Gamkrelidze 1966, Harris 1990, txineraz Karlgren 1934, Sagart 1999 edo tibeto-burmeraz Matisoff 2003 eta japonieraz Janhunen 1997.

ser. Mais on peut essayer de recourir à un moyen indirect, qui consiste dans l'emploi de la méthode comparative. Il faut chercher des mots appartenant à la même racine dans des langues apparentées génétiquement à la langue basque, c'est-à-dire dans les langues caucasiennes. (Lafon 1950: 508)

Ordea, ordurako Mitxelena (cf. haren 1964ko azken atala eta 1969ko lana) oso bestela ikusten zituen gauzak eta 70 urteren ondoren ez da zalan-tzarik (cf. Lakarra 2018a) bide hori antzu eta oinarri ahulekoa zela –handik gutxira Lafonek berak (1951/1952) aitortu bezala– eta, arazoak arazo, askoz emankorrago gertatu dela berak eta bestek gutxietsi barne-berreraiketa.

5.3. Hurbilketa berriaren lehen urratsak

Ondokoa zetorren dagoeneko *Lenguas y protolenguas*:

Ejemplo típico de las actividades de reconstrucción proseguidas en el escalón más alto, conocido o restituído, que aspiran no sólo a penetrar en el pasado, sino también a comprender mejor las relaciones que entrelazaban los términos –cuyo número es siempre indeterminado en las protolenguas– son las investigaciones acerca de la “forma canónica” de morfemas o raíces; su configuración muestra curiosas limitaciones en semítico común que delatan las afinidades de los fonemas en el sistema, o en indoeuropeo, etc. De aquí teorías generales, como la de Benveniste sobre la constitución de las raíces indoeuropeas. (Mitxelena 1963: 40; etzana neurea [JAL])

Lakarra (1995) eta geroztiko lanetan erro lexikoen forma kanonikoa, –ez oso bestelako fonosinbolismoen eta partikula gramatikakelena–,²¹ Aitzineuskara Zaharrean CVC²² zela aldarrikatu genuen; ondorio horretara iristeko ondoko orokortasun eta hertsapenak hartu ziren kontuan:

²¹ Ezagun dira tradizio diakroniko garatuagoetan morfema lexiko, gramatikal eta fonosinbolismoen arteko bereizkuntza sistematikoak FKari dagokionez; ik., ad. Bakrò-Nagy (1992, uralikoa), Gamkrelidze & Ivanov (1984, IEa), Sagart (1999, txinera) edo Blust (1988, 2009, austronesiera).

²² CVR/S zehatzago, dakigunez herskariak onartezinak baitira berez kodan, mailegu berankor, fonosinbolismo edo konposizio-formez landa. C1-i buruzko murriztapenak ere aspaldi dira ezagun.

- a) **VC eta b) **CV lexiko monosilabo autonomoetan;
- c) **TVTV bisilabo soiletan.

TVTV asko da lekukoturik (200en bat edo) baina horiek guztiak sailka ditzakegu mailegu (*bike, bake, katu, kako ...*), konposatu eta eratorri (*begi, bide, dago, gabe ...*) edo fonosinbolismo (*tutu, taka, pupu, pita ...*) gisa eta, beraz, orokortasun hau zein bestea gordetzen dira aztertu nahi ditugun ondare zaharreko erro soilen artean.

Hizkuntzaren garai zaharrenerako erro monosilaboa proposatuaz berehala izan ziren emaitza eta ondorio garrantzitsuak haren lexiko eta gramatikaren azterketan:

1. lehendik ezagutu familia lexikoak zabaldu: *ubel, orbel, arbel... → gibel, sabel*,
2. erro berriak: **ger* : *akher, okher*; **bur* : *samur, labur*; **han* : *ahari, akher*. Inoiz baita mailegu berri edo ezagunen bat ere (**berna-zur* > **e(r)nazur* > *hezur / azur*),
3. erreduplikazioak: *eder* < *(*d*)*e-der*,²³ *adats* < *(*d*)*a-dats*, *gogor* < *gor*, *zezen* < **zen*, *ahal* < **nal*, *ihintz* < **nin-tz*, etab.;
4. aurrizkiak ISn: *sa-* (*samur, sabel, sahets*), *gi-* (*gibel, gizen, gihar*), *la-* (*labar, labur*), etab.
5. atzizki berriak: *-tz*: *hortz* < **hor-tz*, *beltz* < *bel-tz*; *-i*: **arrani* (> *arrai, arrain*),
6. (maila apalagoan) erkaketak mugatzea: euskara eta kartvelikoa-ren erroen arteko ezberdintasunak (AE CVC ~ Aitzin-kartvelikoa (C)(C)(C)(C)(V)(C)(C)) ikusiaz, erlazio-eza frogatzeko biderik ez den arren, baiezkua frogatzeko saioak zeharo ahulak izanik, kontrako diagnostiko sendoa dugu hau.

²³ Hortik jalgi da *adar* (**dar* : *jarri* : *larri* eta abarren familiakoa) nekez izan litekeela mailegu, Tovarrek eta uste bezala (cf. de Bernardo 2006 alderdi zeltarako); ik. §6.2 eta Lakarra 2018a. Gogoangarriak dira Galand 1984ko oharrak berberearen erro-sare tupituek mailegaketari jarri oztopo berezietz.

Aditz erroen azterketak ere, Lafonen (1943) erro mono- eta bisilabo poli-morfoen zerrenda luzea **e-(i)-(da)-(ra)-CVC*²⁴ formula konplexu baina bakar batean biltzera garamatza, eta horrekin berreraiki litekeen hizkuntza egoera zaharrenetik euskara historikora tipologia aldaketa (deriba) antzematera; orobat, morfema gramatikalen forma kanoniko ezberdinak gramatikalizazioaren garapen maila jakin zenbaitekin erlazionatzera (ik. Lakarra 2016, 2018a).

5.4. Forma kanonikoa eta etimologia formala

Mitxelenak ere ez zion uko egin maileguak ezagutzeko irizpide formalak erabiltzeari, iturri zehatzera beti ez iritsi arren:

(...) Por consideraciones formales sobre todo, uno se siente p.ej., inclinado a ver préstamos en vizc. *abagadaune* “ocasión” (con el suf. *-une* tratado en § 4.2.), occid. ant. *apukadu* “sucedido”, ronc. *atizatu*, *atxezatu* “comulgado”, *dollor* “ruín, malo”, *elikatu* “abstenido” y “alimentado”, vizc. ant. *endorea* “el alcalde”, *errexal* “árbol” en Landucci, etc., pero no se ha señalado que sepamos su origen preciso de manera solvente. (Mitxelena 1964: 33)²⁵

Uhlenbeckek ere etimologia-modu ez-atomista aldarrikatzen zuen dagoneko, nahiz orain inor gutxik onartuko lukeen euskal lexiko zaharrear omen diren sortzezko geruza mediterranearra, kaukasikoa eta hamito-semi-taren bilaketa izan helburu aitortua:

(...) je crois déjà rendre service aux études basque[s] en tâchant de ramener les nombreux radicaux nominaux et les racines verbales de la langue basque restés sans analyse à quelques types déterminés, qui doivent, selon toute probabilité, être considérées comme pyrénéens

²⁴ Ondorioz AErako ez sintetikoki jokaturako 6-7 dozena erro ezberdin baizik eta oinarritzko 25-30 ditugu soilik, aditz sail itxiko Australia, Ginea Berriko, Ameriketako eta beste zenbait tokitako hizkuntzetan bezala-bezalaxe; cf. Pawley (2006) eta Lakarra (2006b)-z geroztiko 2008, etab.

²⁵ 1979ko lanean erro bisilabikoak defendatu zituen iberiera nahiz euskara zaharrentzat. Bide-nabar, orain, badakigu *abagadaune* eta *dollor vegada* eta *trollo-tik* datozela (ik. Lakarra 2003 [2008]), eta CVC zaharragora ez bada ere, Forma Kanonikoaren kontzeptura hurbiltzen da Mitxelenaren irizpide hau.

occidentaux anciens. (...) Si pareil élément lexical correspond à un type ancien, il devra passer pour pyrénéen occidental ancien, sauf la possibilité qu'un élément non originellement pyrénéen occidental ancien d'importation ultérieure –mot ou racine– se soit rallié secondairement à un type pyrénéen occidental ancien. Mais cette question est sans importance pour mes investigations, puisque *je recherche non pas des étymologies, mais des types*. Des éléments d'origine étrangère secondairement assimilés à d'anciens types indigènes contribuent, eux aussi à affirmer l'existence de types anciens (Uhlenbeck 1942: 567).

Nahiz metodologikoki hurbilketa honek garrantzi ezin ukatuzkoa izan ondoko edozein ikertzailearentzat, –baita beste helburu diakroniko egingarri eta interesgarriagoetarako ere–, Uhlenbecken etimologia egitasmo sistematikoa ez du funtsean jarraitzailearik izan euskalaritzan. Alabaina, Erroaren FK Monosilabikoaren Teoriari lotuaz (Lakarra 1995hh) etimologia formalak izan du emaitza aipagarriarik eta bere eraginkortasuna ez da agortu oraingoz. Esaterako, bide hori zein beste hartu, berben sailkapen boskoitza egin genezake hainbat hizkuntza eta analisi-bidetan aurki genezakeenaren antzera: 1) mailegu, 2) berrikuntza (ondare zaharreko nahiz mailegu), 3) konposatu eta eratorri, 4) fonosinbolismo eta 5) etimologia ezezaguneko.

Bistan denez, maileguz eta eratorri modernoz jositako edozein erro-eredu ezin da zaharra izan; eta are gutxiago fonema berrienekin (*m/f* edo sabaikariz, ad.) osatuak; orobat, izan zitezkeen erroen eta benetan lekukotuen arteko aldea larria izan dadinean, erro-eredua modernoa dateke, etab. Bada, noski, oraindik garatzea merezi lukeen beste zenbait iragazki eta hatsarre delako sailkapen boskoitz horren emaitzen azterketa fintzeko, baina batez ere bi aski ezagun eta erabilgarri aipatu nahi ditugu berariaz; gainerako lau sailetan kokatutako erroek ere beste helburu batzuetarako azterketa merezi duten arren, (5)-eko etimologiagabeak dira hizkuntza egoera zaharrago baten isla edo jarraipen izateko aukera duten bakarrak; horregatik horien azterketarekin jarraitzeko eta –jakiteko benetan diren garai zaharragoetako egituraren gordailu ala gure aurreko azterketaren hondar menderakaitz–, bi eratako iragazkiak ezarri behar dizkiegu, besteak beste: fonotaktikoak eta geografikoak. Lehenaren bidez, fonema edo fonema konbinazio modernoak zahartzat (*p-, t-, k-, l-, f- / -f-, m- / -m-, etc.*) hartzea oztopatzen da, eta biga-

rranak analisitik saihesten ditu beren hedadura eta distribuzio historiko urriarengatik banaketa dialektalaz (oso)²⁶ geroztiko diratekeenak (ik. Lakarra 2003 [2008] eta ondoko lanetako taulak).

Kalkuluak hitz autonomo gisa lekukotu erroak soilik gogoan hartuaz egin ohi dira; hau da, bai *hon* edo *gor* baina ez *beltz* eratorria eta ezta **-bel-*, zenbait konposaturen bigarren osagaia; ez dira ere bildu *-thor-*, *-bil-*, *-khar-*, etab. (hau da, aditz erro “zaharrak”),²⁷ nahiz beren berreraiketa aho batez onartua izan. Beraz, ohikoei hauek edo azken urteotan berreraiki CVC erro guztietatik seguruena soilik erantsiz ere erro-eredu honen zifrak tauletakoak halako bi edo izango lirateke. Aldiz, bisilabo analiziaezin eta fosilen kopuruak behera baino ezin egin lezake (dagoeneko asko egin du, egin ere), azken 15 edo 20 urteotako saioetan ikusi bezala, usu CVC monosilaboen alde: esaterako, Mitxelenaren **ardano* **ar-dan-o* bezala berranalizatzean dugu horrelako bat; **ena-/anezur* (> *hezur/azur*) **bema-zur*-era daramagunean bisilabo mailegatua eta ondare zaharreko monosilaboa kentzen ditugu trisilaboen zerrendatik... Ez da hone-lakorik izan eta, ziurrenik, ez da erraz izango ere alderantzizko zuzenbidean.²⁸

Lege fonetikoekin ere ohi den moduan, FK sistema heuristikoko gisa ulertu behar da: hots, CVC ez den erro ustez zaharra bisilabo edo are handiago izan, ez da honako analisi honen amaiera, berri-sakonagoen behararen aldarrikapen baizik; hots, edo delako erro hori ez zen uste bezain zahar (eta horretarako daude lehen aipatu iragazkiak eta filologiaren laguntza), edo CVCtik gorakoa bada, mailegu edo antzinako konposizio edo eratorpen fosilduren batez sortua dugu. Tamaina horretatik (CVC) behera, aldiz, erro higatu edo morfema funtzionalen bat dugu aztergai (ik. Mitxelena 1963,

²⁶ Bistan da dialekto modernoetatik abiatuz *gehienez ere* EBZra iritsi gaitzkeela (cf. Lakarra 2014, Urrestarazu 2021, etab.); ez da, haatik, garai zaharragoetarako beste iragazki geografikorik oraingoz; bestalde, EBZkotzat ulerturik ere, emaitza interesgarriak ditugu erro eredu ezberdinetan.

²⁷ Erro eta hitz hasierako herskari bortitzak fonetikoki hasperendunak ziren AEMn eta baita AEZn eta hortik “biluzirik” (aurrizki gabe) ziren kasuetan /h/ (eta gero inoiz \emptyset) bilakatzea “Martineten Lege” deitu ohi dugun aldaketaren bidez; ik. Lakarra 2018a, §4.3.6.

²⁸ Errebisatzaille batek ikusten duen bezala, *-r + n-*, berez, ez da *-n-* bilakatzen; alabaina, **bema-zur*-en bada *bema*-k disimilazio arrunta gerta dadin falta duen *-R*, cf. **hertz-harri* > *eztarri*, **hertz-ger* > *ezker*, **orker* (< *oin-ger*) > *oker*, **bur-ger* > *muker*, **bar-z-her* > *baxter*, **bur(u)z-jarri* > (*b*)*uztarri*, etab.

Lakarra 2016). Beraz, *alu* eta *alha* ezin izan litezke “hitz zaharren egituraren ordezkari jator” (*FHVen* esandakoaren aurka), ezta *otso*, *atso* edo *etse* ere gehi genezake,²⁹ orain baitakigu mailegu garbi direla lehen biak eta eratorri ilun (= zahar), aldiz, azken hirurak. Hots, horiei buruz edo horien kideez badakigu etimologia zehatzak ezagutu aurretik ere erro zahartzat hartzeko beren desegokitasuna nabarmena zela.

6. Metodoaren hedadura

6.1. Hasperena, etimologia eta berreraiketa

Mitxelenak AEren inbentarioan beren-beregi ezarri zuen /h/ fonema, herskari, txistukari eta ozenentzat zirriboratu sistemaren barrenean bortitz/ ahul oposaketatik kanpora gelditu C bakarra. Bestalde, lau jatorri etimologiko –lehenagoko segmenturen bat jarraitzen dutenak, ez hiato-hausle edo “halabeharrez” sortuak– ezarri zituen euskal hitz gehienetan historikoki lekukotutako hasperenen berri emanaz: 1) hitz hasierako herskari bortitzak (**Th-* > *h-*); 2) **-n-* ahulak; 3) lat.-errom. *f-*; 4) AE **h*.³⁰

²⁹ Lehen germanikotik dator erromantzetik igaro ondoren (< gask. *hala* eta cf. gazt. *halar/jalar* eta fr. *haler*) [hauetaz ik. Corominas-Pascual 1980-91 eta Rey 2006]; bigarrenentzat, cf. lat. *aluu(m)* ‘sabel, umetoki’ (Ernout-Meillet s.u.); *-bu-* > *-u-* aldaketa bera *labur* > *lau(r)*, **her-bur* > *hiru(r)* edo **hil-bun* > *ilhun*.

Bidenabar, CVC egitura hertsian harturik, ez da hor tokirik ez C taldeentzat eta ezta diptongoentzat ere eta VC(C)V-ren azterketak etimo zahar gutxi eta mailegu eta konposizio/eratorpen zahar asko aurki genezakeela iragartzen du urteotako emaitzek berresten duten legez.

³⁰ Errebisatzaile anonimo batek “Mitxelenaren sisteman ez dago *Th*-rik dio”; eztabaida eta azalpen antzuetan ez ibiltzeko *FHV* 208ko ondoko pasarteari nagoko, beti bezala: “La aspiración sería etimológica (...) cuando es el resultado de (...) 4) antiguas oclusivas sordas o fuertes en posición inicial”. Errebisatzaile berberak 3. “lat.-errom. *f-*”-ri buruz “hau ez da euskararen /h/-fonemaren iturri bat. Honetarako ez dago adibide bakar bat. Benetako iturria beste hau da: gask. edo gazt. zah. /h/” dio; laket zait irizkideak izatea, ez bainuen Lakarra 2015a baino lehen, gutxienez, horrelako baieztapenik idatziz aurkitu, are hori esateko aukera edo arrazoirik zuten lan ezagunetan ikuskatu arren; cf. “Ez litzateke harritzekoa talde honetara ekarri beharra Mitxelenaren 2. taldeko (lat.-errom. *f-* > eusk. *h-*) hainbat edo ia guztiak: hots, lat.-errom. *f-* > eusk. *b-* (gero *p-*, *f-*), errom. *h-* > eusk. *h-* (gero \emptyset -edo (*t*)*x-* > *z-*)” eta horri egindako oharrean “97. Baliteke euskarak inguruko hizkuntzen hasperenen bilakabidean izan omen zuen egitekoa berpentsatu beharra datu hauen aurrean; cf. Quilis (1996-97) eta han aipatu lehenagoko bibliografia eta oraintsuago Igartua (2011)” (Lakarra 2018a: 94).

Mitxelenak azentuaren eta hasperenaren artean ikusi zuen erlazioa Traskek gero (1997) proposatuaz guztiz bestelakoa zen, nahiz bigarrena bere 1985eko herskari soil/geminatu proposamen heterodoxotik urrundu eta Mitxelenaren bortitz/ahul estandarrari lotu, azentu eta hasperenketa-
ren gai honetatik kanpoko guztian, behintzat. Hasperenketa, beraz, Mitxelenarentzat zein guretzat etimologikoa da bestelakorik frogatu ezean, –astiro-astiro azalduaz doazen salbuespen urrietan bezala–, eta, arrazoi erantsi ezagunekin edo gabe, ez erantsi baina erori egin ohi zen, esaterako azentu ondoko silabetan (galesez bezala); ez zen, hortaz, hiatoak hausteko, hitzak bereizteko ez enparautarako azentuak sortua. Horregatik ezarri zuen Mitxelenak fonema autonomotzat AEn eta ez azentuaren edo ezeren epifenomeno gisa; besterik da /h/ sekundario asko izatea (hau da, ez AEko */h/ zahar baten jarraipen baina bestelako segmenturen); komeni da, halere, hatxe sekundarioak eta ez-etimologikoak bereiztea: batzuek /h/ ez den hotsen jarraipen dira –ez /ø/-renak–; aldiz, bigarrenek ø lukete ordezkaturiko; ik., ad., Janhunén (2007) hizkuntza uralikoen eta gainerakoen hatxe primario eta sekundarioez.

Halaber, Mitxelenak erakutsi zuen /h/aren inguruan bazirela kontraesanak zenbait familia lexikoren barnean (*hire / eure, han / an(h)artean*) edo hizkera ezberdinen artean (*Z aragi / L haragi, S aizo / L hauzo*). Are gehiago, susmagarri irudituaz Zko monosilabo /h/-dunen proportzioa (cf. *hor, hur, hon*), kasutan /h/aren orokortze edo hedadura izan zela aldarrikatu zuen, baita diptongo ondorengo kokagunean ere. Alabaina, ongi datozkien hasperenak kontuan hartzen eta ez datozkien ahazten dituzten “berreraikitzaile” edo konparatista sasikoei bidea oztapatuaz, *FHV*ren 2. edizioan argi utzi zuen /h/aren izaera etimologikoak zalantza gutxi zuela egilearentzat (525). Mitxelenarentzat, –gero Igartua (2001)rentzat bezala– /h/-aren bilakabidea hots honen galeraren kontaketa da, ez horren orokortze edo hedatzearena (cf. *FHV*, 219-20). Aipatu Traskez landa, aurretik askoren iturri izandako Gavelengandik ere (cf. 1920: 478) urrundu zen *FHV* puntu honetan: Gavelen ustez ez zen /h/rik euskararik zaharrenean (harentzat oraindik ez zegoen AErik), ezta Hegoaldeko dialektoetan ere, eta Iparraldean ere modernoan omen. Baina haren usteen aurka ozenki mintzo zen ez soilik berreraiketa baina baita Luchaireren bidez ordurako ezagut zezakeen (hobe,

ezagutu beharra zuen) lekukotasun akitaniar argia, hegoaldeko Antzinate zein Erdi Aroko gehienak soilik ondoko hamarkadetan argitaratu arren.

Mitxelenaren ondoko ikerketak “halabeharrezko /h/” edo “/h/ antietimologiko” asko uxatu ditu (ik. Lakarra 2009a-b-c, 2015a) modu erregularrean azalduaz haren parametroen barnean: horrela, demagun, hark Zren berrikuntzat zituen monosilabo zenbaiten hasierako /h/ak –zenbait Etxeparez geroztik ezagun dira dagoeneko handik landa ere– edo diptongo ondokoak; hauei buruz, markatzeko da bakar baten etimologiarik ez eman izana, bere ohiko joeraren aurka. Bada, guztienak oraindik ezagutu ez arren, azal ditza-kegunetan /h/ da zaharra eta etimologikoa eta haren aitzineko /i/ gehitua: cf. *saihets* < **sa-hets* (cf. *sa-bel*, *sa-min*), *oihu* < gask. *hou hou*, *eihera* < *eho*, etab. (ad. gehiago in Lakarra 2019b). Gainera, Mitxelenak finkatu /h/ren lau ja-torri etimologiko ezagunez landa, beste lau ere badira (cf. Lakarra 2015a):

5. *-r* > *-h* konposizioan eta deribazioan: *hor* + *alano* > [**hoh-alano*] > *ohalano*, *hur* + *arte* > [**huh-arte*] > *uharte*, etab.
6. mailegu gaskoi askotako *h*, –dela ezker (kontaktuaren lehen garaian hartu lekuan berean), dela metatesiz barneratu gainerakoak–: *hami*, *elhe* (<*hele*), *unhatu* (< *huna*), etab.
7. *hVl-* > *Vlh-*, *hVn-* > *Vnh-*, *hVr-* > *Vrh-* metatesiak, mailegu gaskoietan zein ondare zaharrean (*alhatu* < gask. *hala*, *ilhun* < **hil-(b)un*), *erhi* < **heri*, etab.
8. BN garaikideko zenbait herritan bokalarteko herskari ahostunetarik sortuak: *ibili* > *ihili*, etab.; antzekoa da, itxuraz, –nahiz hedadura dialektal eta kronologia ezberdina izan– Z modernoko *-r* > *-h-*, baina (errebisatzaile batek gogoratu bezala) egiatan *arhan*, *erho* > *ahan*, *eho* da lekukotasunetan aurkitzen duguna.

Lehen baino seguruago esan genezake, beraz, /h/aren izaera etimologikoa dela “zero hipotesia” eta gertakari hau aurrerapen larria dugula berreraiketant zein etimologiagintzan ere.³¹

³¹ Dosierra ixteko, ohar bedi gask. *h-* > eusk. *ø-* kasuak ezagutzen ditugula (*hemne* > *eme*) baina ez kontrakorik, gask. *ø-* > eusk. *h-* rik, alegia. Hori bai, ezagunak dira aspaldi (cf. FHV) *hezkabia*,

6.2. **Hitz-Familiak**³²

Mia bitez ondoko hitzak:

- | | |
|-------------------------------|-----------------------------------|
| a. <i>Gazi, atze, jale;</i> | b. <i>Harbel, gordin, zaldun;</i> |
| c. <i>Gogor, zezen, adar;</i> | d. <i>Lagun, gibel, samur.</i> |

(a) eta (b) sailtakoak (c) eta (d)-koak baino aztergai askoz erraza-goak dira. Haietan edozein euskaldunentzat bistan dira *gatz, jan* eta *-le* ‘egilea’ eta ez dirudi zailago *har + bel, gor + din, zal(di) + dun* bereiztea ere; (c) eta (d)-n, aldiz, zailtasunik bada **gor, *zen* eta **dar*-era iristeko (c)-n eta (batez ere) (d)-ko, **la-*, **gun-* [*< *dun*], **gi-*, **sa*-ra. Hots, (a) eta (b)koak eratorri eta konposatu bezala azaltzen dira edozein gramatika edo eskuliburutan baina (c) eta (d)koak euskara garaikidean ez eze, haren historia eta protohistoria osoan –eta, seguruenik, historiaurreko menderen bat baino gehiagotan–, hitz soil gisa ulertzen, ez konposaketa ez eratorpen gabe. Zergatia ez da ezkutua: lehen bi taldeetan erro eta (atz)izki bizi eta emankorrak dira, gardenak, beraz, gaurko gramatika eta hiztegia menderatzen dituenarentzat; beste bietan ez da horrelakorik: erreduplikazioa lexikalizaturik (*gorri-gorri-gorri*ⁿ-k ez du kontatzen) eta

harroka eta beste zenbaiten arrazoiak eta oraintsuago (cf. Lakarra 2015a) baita E1-ek aipatzen dituen *harra, herratu* eta beste gutxi batzuenak ere, nahiz, beharbada, “arrazoigabeko” *h*-ren bat geldituko den oraindik. Alabaina; lege fonetikoaren emaitza ugarien eta horien salbuespen urrien artean sistematikoki bereiztera garamatza hizkuntzalaritza diakronikoaren 150 bat urteko jardun estandar bezain emankorrak, Mitxelena *FHV*² §11.6 hasieran egin bezala, bidenabar.

³² Atal honetarako bibliografia eredugarri asko da beste hainbat hizkuntzatan; adibide huts gisa, hara bukaeran aipatu hausari buruzko Schurenak, txineraren inguruko Karlgreen eta Sagartenak, tibeto-burmerazko Matisoffenak edo austronesierazko Blustenak.

Onartezina litzateke “hitz familiak” lege fonetikoak ordezkatzeko edo hauetan ez ikertzeko erabiltzea Hill eta Fellnerrek Matisoffi eta sino-tibeteraren zenbait ikertzailei aurpegitatu bezala *Cahiers Linguistique Asie Orientale*-ko 2019ko ale berezian. Ez da hori Schuessler, Handel eta gainerako espezialisten iritzi ez asmoa (ikus ale bereko erantzunak) eta, Thurgood-ek iradokitzen duenez, baliteke Hill eta Fellnerren baieztapenak alorra behar bezain hurbiletik ez ezagutzetik etorri izana. Gure kasuan, badaezpada ere, euskal hitz-familien interes nagusia lege fonetiko eta morfologiko zehatz, zahar edo sakonagoak bilatzen eman dezaketen laguntzan datza (hots, momenturen batean familiak erabili gabe haiek eskuratzea ezinezko edo askoz zailago izanik eman diezaguketena, ez “allofam” eta antzeko deizioekin gure ezjakintasuna estaltzea).

aurrizkitzea fosildua dira duela 2000-2500 urte eta, horien aztarnarik ez delarik egungo hiztunen gaitasunean; euskalariak ere ez dituzte ezagun zahar.³³

Aditzaren sistemaren eraketan ikus liteke badela (bazela, funtzionalak zirenean) hainbat hitz-sare edo familia, erroa, zenbait aurrizki edo erro sekundarioz osatuak [atzizkiak berankorrago ohi dira]). Horrelako eraketak ez dira, halere, soilik Aditz Sintagman baina baita Izen Sintagman ere:

ER	ø-ER	e-ER	2. Os.	ERRE	Aurrizki Multzoa
*dar	: lar	: jar(ri)	: in-dar	: adar	: inar / txilar
*dats	: lats	: jats(i)	: al-dats	: adats	: arrats
*den	: lehen	: edeki	: ez-ten	: ___	
*der	: ler	: ___	: ___	: eder	
*din	: *lin (> herio)	: jin	: gor-din	: idi	: *edaradin (jarrain)
*dol	: ___	: jori	: ozkol, idol	: odol	
*don	: loh-i	: jo /idoki	: -do.i	: ___	
*dur	: lur	: iurri	: (h)an-dur	: ___	: inurri / txinaurri
*duz	: luz(e)	: (e)utz(i)	: ___	: ___	

(Legenda: E = erroa; 2. Os = 2. osagaia; ERRE = erreduplikazioa)³⁴

Zenbait txandakatze bada *l-* (forma soila) : *j-* / *d-* (aurrizkidun) : *-d* (2. osagai) : *ø-* (erreduplikazio)... AĒko *dVC erroei dagozkien alomorfoetan;

³³ Euskara historiko aurritziberan ohikoaren erabat aurkako dugu baina horren zantzuak urrutitik datozkigu: ik. Trask (1977), Gómez (1994), Gómez & Sainz (1995) eta Lakarra (2006hh). Mitxelena ma- "sasi-aurrizki" fonosinbolikoa onartu zuen soilik, hasierako hotsen eraketak betetzeko edo sortua (FHV, 271-3).

³⁴ Bistan da, E1-ek gogoratu bezala, taulako forma guztien uestezko esanahi zaharren arteko lotura ez dela argia; batzuen, ordea, EHHE200n bertan erakutsi dugulakoan nago. Alabaina, gertakari hori ez da harriztekoa, Benveniste (1954) klasikoak eta bestek are lehenago markatu bezala, esanahiaren berreraiketak formarenaren atzetik joan beharra baitu gehienetan. Horrek ez dakar, ordea, homofoniak arrisku gaindiezintzat hartu behar direnik, homofonia-ustezkook izan duten bilakabide historikoa ikertu baino lehen, bederen (ik. §6.3 hasierako aipua).

bestalde, hauek *IVC* bilakatu ziren AE klasiko edo modernorako (cf. Mitxelena 1957a). Familia askoren ikuspegi orokorrak erakusten digu, hark (1961/77) zioenez, zein izan zen **d*- zaharren bilakabidea.

AEZko hitz-eraketaren gramatika minimoa gara liteke dagoeneko erreduplikazioa, aurrizkitzea eta konposizioa baliatuaz.³⁵ Atzizkitzea –aurrizkitzea baino askoz zabalduegoa delarik eta ia edozein hizkuntza egituratan lekukotu ohi denez– egiantzeko da garai horretarako ere, nahiz garai historikoetan baino hainbatez urriago izan, are alde bat utzirik literatur hizkuntzekikoak (cf. Lakarra 1997a, Sarasola 1997).

Familia lexikoen azterketak orobat bultzatzen gaitu AEZko sistema fonologikoa ere –*ozen eta txistukariei dagokienez*– birpentsatzera, Martinez Aretak (2006) egin bezala orain baino oinarri etimologiko gutxiago zenean. AEZrako ez genituen hiru kokagune edo gehiago Mitxelenak C-entzat AEMren analisirako zituen bezala, –zehatzago, soilik C- eta -C ziren–, nahi eta nahi ez birformulatu behar fonotaktika aurreko garairako. Hasiera eta amaierako kokagunean ez baizik eta erdikoetan gordetzen da AEMn opoaketa bere gardentasunean, haren alde bakarra delarik hasieran eta bestea soilik bukaeran. Gauzak honela, AEZrako bi kokaguneetan fonetikoki bereiztera iritsiko balira ere bikote bateko soinuak, fonologikoki AEMn fonema kopuru erdiarekin aski genuke, hots horiek distribuzio osagarrian izanik ez baitira bi fonema txistukari apikari eta lepokari) eta hiru ozen (alboko, sudurkari eta dardarkari) baizik.³⁶ Hiru ozen eta bi txistukaritatik AEMko sei eta laura igarotzeko ezinbesteko gertatzen da ondoko garaietako bisilabismorako joera eta honekin doan CC taldeen sorrera; hots, txistukari eta ozen bortitzak AEZtik AEMra bitartean eratzen diren dozenaka CC talde-

³⁵ Gorrotxategi & Lakarra (2001)-ez oso bestelako ikuspegia dugu hau; hura tradizionalago zen, aurrizkiak kostatzen ahala kostatzen saihestuaz eta atzizki- eta konposizio-bidezko hitz eraketa lehenetsiaz. Geroztikoak dira gorago aipatu erreduplikazioaren eta aurrizkien aurkikuntza edo erroaren zenbait hertsapenen formulazioa; cf. Lakarra 2011, etab. eta hemen gorago §5.2.

³⁶ Eta horrekin aski, metodo konparatuaren (eta, oro har, edozein zientziatiko oinarritzko teoriaren) arabera ez da berreraikitzen edo suposatzen arrastorik (beharririk) utzi ez duenik. Horrela, noski [m] eta [p]-ri dagokienez ere (cf. Mitxelena 1957a, FHV eta Trask 1996ko azalpen argia), Blevinsek eta bestek “argudio” tipologikoak eta hatsarre diakronikoak nahasiaz kontrako bidetik jo arren.

ren berranalisen emaitza dira, Mitxelenak 1957a-n eta 1961ean usnatu baina froga (etimologia) faltaz frogatu ezin zituenak:

L : **bel-le* > *bele*; **enon-le* > *ile*; *Haran-luze* > *Haraluze*,

N : **arran-no* > *arrano*; **ba-din-no* > *baino*; **-ra-din-no* > *-raino*

S : **hor-tz-so* > *otso*; **her-tz-(te)* > *etse*; **e-ra-khus-tz* > *erakuts*³⁷

Bokalismoan ez da ezer markagarririk –beharbada inbentario zabalagoa itxarongo genuke aitzinmundan (cf. Donegan 1993, Donegan & Stampe 2004), aitzindravidieran (cf. Krishnamurti 2001) edo aitzinjaponieran legez (cf. Frellesvig 2010, Frellesvig & Whitman 2008)–,³⁸ ez bada diptongoen izaera berantiarraren (oso berantiarraren, usu) berrespena. Erroaren egitura monosilabikoak eta aurrizkiek bai hitzeko eta bai esaldiko goranzko azentua proposatzera garamatzate monkhmerrean bezala (mundarenaren aurka, beraz) Doneganek eta Stampek famatu kasuaren paralelismoekin jarraituaz.

6.3. Gramatikalizazioa, lexikalizazioa eta etimologia

If we dismiss every case of polisemy as accidental we deprive ourselves of the possibility of ever finding out whether the two functions are in fact related or not. If, in contrast, we try to discover a relationship, in the worst case we may find that non exist. But in an optimal case we may find out that a connection exists, and the explanation of this connection may send some light on the nature of language structure and of language change (Frajzyngier 1986: 233)

³⁷ E1-ek herskarientzat adibiderik ote den galdetzen du; nik ez dut ezagutzen (Trask 1985eko proposamenak ere gogoan izan arren); horregatik testuan zein beste lan batzuetan gertakari hau txistukari eta ozenetara mugatu dut, Mitxelenak ere susmatu bide zuen bezala.

³⁸ Lakarra 2018a-n gogoratu genuen Gilek (1986) markatu fonologiaren enparauko alderdian legez, V inbentarioan ere hurbilago zirela VSO [Aditz-Subjektu-Objektu] eta SOV [Subjektu-Objektu-Aditz] hizkuntzak ezen ez horietakoak eta SVOkoak [Subjektu-Aditz-Objektu]; egoera zaharrak gehiagoren arrastorik ez utziak ez du besterik baimentzen eta, gainera, Gilen go-goetak ulergarriago egingo luke AEZrako bokal haboro behar ez izatea, VSO AEZn onartuaz; cf. Gómez (1994) eta Gómez & Sainz (1995).

Beharbada gramatikalizazioa dugu teoria linguistikoak berreraiketari eta, ondorioz, etimologiari azken hamarkadetan eskaini bultzadarik garrantzitsuena. Nahiz Meillet dagoeneko gaiaz arduratu, –baita Kurylowicz eta beste diakronista handi asko ere–, azken hamarkadetan jaso du gramatikalizazioak inoizko arretarik gehien. Izan ere, haren definizio gisa eman ohi den formula ezagunak –“morfema lexikoak gramatikal eta gramatikalak are gramatikalago bilakatzea(ren azterketa)”– iragarri bezala, azterketa-bide honek berebiziko laguntza eskaini du hizkuntzen historia eta haien gramatikaren historiaurrearen ikerketan; hori bera gerta ailedi euskararenean ere.

Ezer baino lehen, gramatikalizazioaren izaera holistikoari erreparatu behar diogu; hau da, fenomeno honek morfemen alderdi foniko, morfologiko, sintaktiko, semantiko eta are pragmatikoak ukitzen ditu, –eta nahiz gertakari hau zenbait teoriko sinkronista dogmatikok oso gogoko ez izan–, argi da diakronistak alderdi horiek guztiak behar dituela kontuan izan bere berreraiketa lanean, eta ez bakarrik hitzez edo alegorikoki baizik eta ukitu azpialor orotako ohitura eta ekanduak jarraituaz eta gordeaz, denbora eta espazioan hurbileko eta urrunagoko paralelismoen analisi berezituerei ere lotuaz. Honela lortzen dugu gure lanerako laguntza berebizikoa, berreraiketa modu seguruan gidatuaz eta *l’embarras du choix* ahalik eta gehien mugatuaz, hots, analisi alor bakoitzaren argumentazio atomistetan oinarritu aukera kontaezinak ezabatuaz edo urrituaz. Bestalde, hizkuntza isolatu eta tipologikoki auzoetarik hain urrun den euskaran, –urrunago zenbat eta denboran atzerago jo (cf. Lakarra 2005, 2006, 2018a, etab.)–, gramatikalizazioak hura gabe berreraikitzen ia ezinezko lirartekeen hainbat ezaugarri eta bilakabide eskuratzen dizkigu.

Lehen nola edo hala laguntzaile edo partikularen bat³⁹ berreraikia genuen; orain, ordea, horiei marka gramatikal asko erantsi ahal zaie, adib. Lafonek duela hiru mende laurden azertu harako *-ti* atzizki bikotea:

Je crois, enfin, que l’ablatif en *-ti*, élargi plus tard en *-tik*, est un ancien adjectif qui a été intégré au système de la déclinaison. Dans

³⁹ *al* galdetzailea norbaiti orokor eta betiereko iruditu arren, *bai/ezko* interrogazio marka huts legez, G-z lekukotua dugu soilik eta XVIII. mendearen ia amaieratik aurrera gainera (hots, lehen lekukotasunak, ez erabilera bakar eta ezta nagusi ere dialekto horretan bertan beste zenbait belaunalditan). Enparauko erabilera edo balio batzuk (‘uxala’, ‘segurki’...) askoz zahar eta orokorrigo dira.

la vieille langue, en effet, un mot pourvu du suffix *-ti* et qui fait figure de complément à l'ablatif peut souvent être considéré comme un adjectif attribut ou placé en apposition.

Le proverbe 44 d'Oihenart, *Asiti bihia*, est une phrase sans verbe qu'un basque d'aujourd'hui traduirait par "le grain procède de la semence". *Asiti* est en effet l'ablatif actuel de *asi* (*axi*) 'semence' en souletin. [...] Mais Oihenart, qui avait un sens très vif de sa langue traduit: "le grain vient *tel qu'etoit* la semence"; les mots en italique "sont des adouctements faits au texte basque, pour vne plus ample explication d'iceluy". Ce proverbe signifie donc proprement "le grain est de la nature de la semence, semblable à la semence". (Lafon 1999 [1948]: 202-3)

Alabaina, datu markagarriak izan arren, azalpena ez da asebetegarri: zer-gatik da gertatzen fenomeno hori? Euskarazko bitxikeria bakarrik ote? Orain *hordi*, *geldi*, *handi*, *erdi* (eta, agian *irudi* ere) bezalako *forma sparitak* kontuan izanik (***horti*, ***gelti*, ***hanti*, etab.), bistan da *-di* zela, ez *-ti*, ADJ egiteko atzizkiaren forma zaharra eta, honenbestez, erro zaharreko fonologiara areago hurbiltzen (cf. **eden* → *-de* > *-te*). Hots, **din*-en 'bihurtu' adieratik dator atzizki ADJgilea (cf. Genetti 2008 antzeko kasu baterako).

Heine & Kutevak (2002), s.u. COME: "(a) ablative (locative, "(b) near past", "(c) benefactive)", "(d) change-of-state" [adjektiboak], "(e) future"... lekukotzen dute aditz horren gramatikalizazio gisa munduko hainbat eta hainbat tokitako hizkuntzetan. **Edin* aditz bera dugu ABL egiteko hainbatetan eta, nabarmenki, euskaraz **-di* alomorfo zaharretik *-ti* berria atera eta orokortu da. Ez da, beraz, ezer ezohiko edo ulertezinik Lafonen "bi atzizkien" erlazio eta jatorriari dagokionez. Are gehiago, Dimmendaalek dioenez (2011: 128-9) Nilo aldeko zenbait hizkuntzatan animalia izen batzuk COME aditzetik sortzen dituzte eta nekez gera gaitetzke *zaldi*, *ardi*, *ahardi*, *idi* eta, beharbada, *behi* (< **be(he)-di*, cf. *behor* < **be(he)-hor*)-rekin lotura egin gabe. Paraleloak ez dira hor amaitzen: Heinek eta Kutevak diotenez COME-ren futurozko gramatikalizazioa oso aurreratua da bambaraz, suedieraz nahiz tamilez eta, beraz, eusk. arkaikoko *daidi*, *leidi* eta enparauen hondar silabaren jatorriak burukomin gutxiago bide dakarke.

Lehenik TV egiturako hizkiak aztertuz eta gero ikerketa gainerako hainbat CVtara hedatuaz aurkitutako gramatikalizazio kateak asko dira: ASP

burutugabe/adlatibo marka (**da-/ta/-a* < **dar*, cf. *jarri* ‘SIT’), *-de/-te/-e* ‘FINISH’,⁴⁰ datibo (*-i* ISn, *i-* aditz izenean, **nin* ‘GIVE’tik), ABL-PROS eta ADJ-eratzaila (*-ti /-di* < **din* ‘TO COME’), *-do/-to/-o* ‘COMPLETIVE’ konparatibo marka (*-so* ‘TO SAY’), *-bo/-po* ‘IN GYRUM’, etab.; cf. Lakarra 2013a, 2017a eta Heine & Kuteva 2002.

Gramatikalizazioaren direkzionalitateak eta bere izaera (ia) unibertsalak ahalbidetzen du ez soilik abiaburuko formak baizik eta tartekoak ere berreraikitzea. Hau da, CVC delarik forma kanoniko lexikoa euskara zaharrean, *-tate* (*borondate*) edo *-zaha* (*Elhorzaha*) bezalako atzizki bisilabikoak mailegu edo morfema amalgama izan bide litezke, jakina denez morfema gramatikalizatu primarioak nonahi erroak (CVC) baino FK txikiagoa (CV) izan ohi baitu; cf. Lakarra (2016). *-V* edo *-C* tankerako morfemak soilik gramatikalizazio sekundarioak izan litezke *C-* edo *-V*ren erorketaz, hurrenez hurren (ik. gorago) eta, azkenik, *-VC* egiturakoak **CV-CV*ren bilakabidez (amalgamaz) soilik sor litezke: *-ak* ‘nom.pl.-erg.sing.-(erdi-mend. baita erg. pl.) < **ha-ga*, etab.

Bistan da kronologia erlatiboak eraikitzeke edo aspaldiko “zahar”/“berri” eztabaida eta are alomorfo ilunen jatorri zenbait erabakitzeke (gen. *-e / -en*, dat. *-o* < **bon*, etab.) hurbilketa honek izan lezakeen interesa. Trasketek – intuitiboki eta gertakariaren alderdi guztiak aztertzeke asmorik gabe – aldarrikatu zuen *-TV* atzizkietan hiru alomorfo direnean (*-de/-te/-e* ‘3. pl. [> I. pl.]’, *-gi/-ki/-i* ‘datibo aurrekoa’), ahostuna zuela zaharrenak eta ahoskabea berrienak, bokal huts ez zenean; hatsarre horren hedapen eta osagarri zenbaitez ik. Lakarra (2013a).

Orobat, Lakarra 2014n gramatikalizazioak (*egin / *ezan / iron; *edutsi / *enin / *eradun, eradutsi*, adib.) dialektologia sinkronikorako eta, batez ere

⁴⁰ Ohar bedi (cf. Lakarra 2018a, prest-a) plurala (*-de/-te/-e*) eta ‘inperfektiboa’ (*-te* Ad.Iz.) ere jatorri beretik atera litezkeela (< **eden* ‘FINISH’) euskaraz zein beste hizkuntza batzuetan. E1-ek galdetzen duen lerro hauetan aipatu ahoskabetze guztien azken jatorria (testuinguru fonetiko erregularra) berbera bide da (txistukari ondokoa, diptongo ondokoak kronologia berriegia bide luke); ez da ahazteko, halere, analogiaren oinarritzko ondorioa (forma berriak funtzio nagusia hartzen duela eta zaharra bigarren mailakoetan baztertua gelditzen dela Kurylowiczek eta irakatsi legez), morfologizazioaz geroztik horrek baitu markatuko alomorfoen distribuzioa, ez hasierako testuinguru fonetikoak.

diakronikorako izan dezakeen egiteko eta interes metodologikoaren adibi-deak eman dira. Morfologia historikoaren eta etimologiaren alorreko azalpen-bide hau oraindik zirriborro hutsean da euskaraz baina, halere, ezin uka etimologia lexikoaren osagarri den gramatikalaren alderdirik emankorrena dugula (cf., zabalago, Lakarra prest.-a).

6.4. Etimologia konparatua eta motibazioa

(...) il devient impératif de s'assurer que les emplois permettent non seulement de rapprocher des sens qui paraissent différents, mais de motiver leur différence. Dans une reconstruction d'un procès sémantique doivent aussi entrer les facteurs qui provoquent la naissance d'une nouvelle " espèce " du sens. Faute de quoi la perspective est faussée par des appréciations imaginaires. (Benveniste 1954: 295)

Gramatikalizazioaren garapena baino lehen ere, –filologoaren intuizio hutsaz landa–, bazen etimologiagintzan den hurbilketa aukera eta “soluzioak” mugatzeko biderik, etimologia erkatua, esaterako. Horrela, Mitxele-nak *arrain*-en aldaera ezberdinak (*arrañ, arrain, arrai, arran-*) berreraikiaz **arrani*-ra iritsi arren soilik, ez dirudi ezinezko pixka bat aurreraxeago jotzea: amaierako *-i*-k badu hainbat kide aditz zaharretan, *etorri*-n eta *ibili*-n baina baita *gorri*-n edo *gazi*-n nahiz beste askotan eta, beraz, partizipio marka zaharra dugu hor. Honainokoak hizkuntzaren barneko datu ezagunak baino ez dira; alabaina, urrutiegi gabe, gaztelerazko *pescado*-n bertan (= *pesc-ado*) aurki genezake euskarazkoarentzat egin analisiaren kidea, barne-berreraiketaz lortua erkaketaren bidez berretsiaz; cf. Lakarra 1995. Halaber, *hortz* ere *hor* + *-tz* zatika genezake, *beltz* (*bel-tz*) edo *bortz/bost* (*bor-tz*) ... legez; ez, haatik, *gatz* (***ga-tz*, cf. **CV, §6.3); gogora bedi *colmillo*-ren sinonimo den *canino*, *can*-en eratorri dela, eusk. *hortz hor*-ena legez.

Lakarra (2002)n *barda/bart* ‘joan den gaua’ **gaur-da*-tik ‘*dagoeneko izan/iragan gau hau’ azaldu genuen.⁴¹ Gu ohartu ez arren, Watkinsek (1965) eraku-

⁴¹ Ezaguna da *gaur* < *gau* + *haur*; marka bedi bisilabismoaren hedadurari lotu *-r* > *-R* (cf. Lakarra 2017a.)

tsia zuen eraketa horren berorren kiderik IEz (latinean inon baino hurbilago: *nox, noctis*) eta are zenbait hizkuntza amerindiarretan (menominian eta ojigwan ad.). Gainera, gure 2002ko etimologia hori seguruago bilakatzen da ohartzean amerindiarretan konstrukzio berbera ez soilik ‘bart’-ekin baizik eta ‘joan den negu’ eta ‘joan den uda’-rekin ere erabiltzen dela. Geure ardietara itzuliaz, ez da gauza handirik egiteko alde honetatik, –dagoeneko Schuchardtek ikusi bezala–, mailegu gaskoia den *negu*-rekin; alabaina, besterik da *uda*-rekin. Honen aldaera interesgarri bakarra Mikoletaren *euda* da baina, arreta apurren bat emanaz B. Ariztimuñok egin legez, **eguda*-tik (= **egu-da* ‘eguzki – izan(dako)’ = ‘iragan uda’) hurbil jartzen gara; gero, aurreraxeago, lehendik azaldu *bar-da*-ren, latinezkoaren eta aipatu amerindiarren egitura berarekin. Hizkuntza horietako formekiko konparazioagatik izan ez balitz, *barda* eta *uda* arteko hoshidetasuna antzematera ere ez bide ginen iritsiko eta ezta AEko gramatikako fosil baten hondar argigarri urri bezain paregabeen aurrean ginenik ere.

Lakarra (2002)n *ipurdi* < **ibi-erdi* (cf. *ipirdi*, aldaera zaharrena) proposatu baino lehentxeago de Lamberteriek (2000: 127-31) grek. *pro:ktos* eta armenierazko paraleloak aurkeztu zituen zuzenbide berean. Nahiz hemen idatziz xehetasun gordinenak saihestea konpli den, ezinutzizko –aski eta sobera gurearentzat ere– iruditzen zaigu haren iruzkina: “On met ainsi en évidence une *motivation*: l’orifice anal doit sa désignation au fait qu’il est l’endroit par où les matières fécales achèvent leur parcours, l’extrémité d’une “voie de passage”. De Lamberteriek (2000: 128) **prōk* erroaz ‘traverser, aller jusqu’au bout, accomplir un parcours jusqu’à son terme (Chantraine)’ nahiz ‘*traverser, franchir, passer*’ zela erakusten du, hots, gure **bi*-ren kide (> *b-*, *-i*, *biz-* [+ *-z* ‘instr.’]) *ibi*-n, *zubi*-n, *azpi*-n eta bestetan. Benvenistek (1954) ezarri zuen bezala, motibazioaren bilaketa da etimologiagintzan akuilu eta laguntza sendoena, eta beste horrenbeste esan bide liteke berreraiketaz ere:

Nous touchons ici à la notion de *motivation*, reconnue comme centrale en linguistique depuis Saussure, et où se manifeste la tension entre synchronie et diachronie. C’est un fait bien connu qu’un terme motivé dans une synchronie donnée peut devenir opaque dans un état ultérieur de la langue, car l’évolution disloque les familles de mots. (de Lamberterie 2000: 119)

Egile berak erakusten duenez, indoeuropeistek etenik gabe jardun dute gramatika konparatua sortu zenetik hitzen etimologia (= motibazioa) asmatu nahian eta horren adibide bezala ematen digu ‘4’-rena:

Voici un autre exemple de motivation. Selon une analyse d’Alfred Heubek largement acceptée aujourd’hui, le numéral hittite *mieyawas* “quatre” remonte à un adjectif i.-e. **méy-u* “amoindri, diminué”... [‘laburtu’ latinez eta grekoz eta ‘laburrago’ konparatiboa tarteko]... *cette dénomination fait référence à la main considérée sans le pouce.* (de Lamberterie 2000: 120-2 [etzanak geureak, JAL])

Asko da hor euskal alorrerako ere modukorik: lehenik *laur* eta *labur*-en artean, –usuko /u/ aurreko /b/ bokalarteko ahostunaren erorketaren bidez (cf. Lakarra 2010, 2020a)–, proposatu dugun loturaren kide bat; gero, zenbakikuntza sistema zahar gehienen oinarrian delarik etzanez eman dugun hatz lodiaren saihestea, Epps (2006)ren egungo amazoniar hizkuntzetako sistema lagun hartuaz euskarari dagoeneko ezarria. Izan ere, eskuaren aurreko zein atzeko aldean ditugu hatz hori saihestearen frogak: atzeko partean lau muinotxo dira (ez bost), bi eskuetakoak bilduaz *zortzi* (< *zortz-i*, cf. *okto* IE hizkuntzetan) eta beste askotan bezala ‘zorrotasun, mendi-kate’-tik; ik. Lakarra (2010)ko bibliografian *bortz-sei-zazpi*-rentzat eman paraleloak lurraldeotan eta enparauetan. Ez gara mailegu ez kalkoez ari, noski: norbaitek aurreko kideak hurbilegikoak etsiaz aski ez balu, hara gorago aipatu Etiopiako zenbait hizkuntzatan TO COME bitartez sortu animalia izenak, eusk. *idi*, *ardi*, *ahardi*, *zaldi*, *hordi*, *?behi* bezalakoxeak.

Dagoeneko aski garbi geratu bide da analisi formala azterturiko berben motibazioaren ikerketarekin osatu beharra; hara de Lamberteriek nola laburtzen duen Benvenistek (1954) proposatu eta gero bere *Les institutions*-en burututako programa (cf. Watkins 1984 ere):

(...) aborder la question du signifié dans le travail de reconstruction, c’est tenter de restituer non pas des formes (ce pour quoi le comparatiste dispose de règles éprouvées, il suffit de les appliquer avec rigueur), ni des *realia* (ce qui relève du travail du philologue et de l’historien), mais des concepts, c’est-à-dire des opérations mentales. Reconstituer la réalité immatérielle qu’est un procédé de désignation est une tâche d’autant plus délicate que les conditions his-

toriques ou et culturelles dans lesquelles un lèxeme donné a changé de sens ou a pris une acception particulière nous échappent. Or la prise en compte de ces facteurs est essentielle: c'est l'étape obligée pour accéder à une étymologie acceptable du point de vue scientifique, c'est-à-dire une histoire des mots et non seulement l'établissement d'une origine. C'est ici que l'extrapolation de l'histoire à la préhistoire se révèle être une tâche difficile, bien souvent hasardeuse, mais néanmoins nécessaire: la véritable étymologie est à ce prix. (de Lamberterie 2000: 120)

6.5. Nola egin etimologia gehiago eta hobeak

[...] “the trick”, if I may call it that, is knowing what to compare: finding the word in the first place, finding the meaning, finding the parallel, getting the phonology and morphology right, finding the spot of semantic overlap, finding the cultural fact. It is, as I have said elsewhere many times, the first law of the comparative method: you have to know what to compare. (Watkins 1990: 178)

Gure alorraren egoera urruti da Szemerényik aztertu gogo zuen IĒtik, ez berezko ezberdintasun gaindiezinik delako, segurki, bataren eta bestearen lekukotasun, ikertzaile (belaunaldi) kopuru eta kalitateagatik baizik. Alabaina, aldatu beharrekoak aldatu eta egokitu beharrak egokituaz, eskura litezkeen filologiarik hoberena eta teoria linguistiko gaurkotuenak dira ardatz batean zein bestean. Lehen hiru erregelen sarrera gisa Szemerényik dioskunez, “begiratu fonetika, b. morfologia, b. semantika, b. dialektologia, (b. filologia)... eta seguru etimologia hobeak aterako zaizkizula” (1962: 45). Horregatik, delako etimo batek –funtsean bistako izan arren– zailtasun fonologikoak, hitz-eraketakoak edo morfologikoak izanez gero, ikertzaileak soluzio “ekonomikoagoak” bilatu behar lituzke; egileak dioenez “more often than not the result will be the discovery of an entirely different, evident, solution” (52). Hondar hiru erregelak hizkuntza geografiatik datoz: “4. Hitz bat segurtasunez IĒtik datorela esan ahal bada eta familiako hizkuntzaren batean lekukotua ez bada, gertakari hori azaldu behar da” (57); “5. IEzko hitz bat latinez lekukotzen bada, mendebaldeko gainerako hizkuntzetan antzeko eraketa duke” (64); “6. Mailegua ez den hitzak antzeko eraketa duke inguruko hizkuntzetan” (70).

Szemerényiren hobekuntzaren bat (inoiz bat baino gehiago) ezartzea komenigarri ez eze beharrezko ere badela erakutsi nahi genuke.

a) *Golde*. Aspalditik lat. *culter*-en bidez azaldu ohi da, funtsean alferkeriaz, nahiz *OEH*ra ere iritsi sasiazalpen hori. Hurbilketa horretan, nola-halako hoskidetasun batez landa (herskari belarra + atzeko bokala + *l* + hortzetakoa + *e*) badira zenbait “ezberdintasun” eta, batez ere, ez-egokitasun erabateko:

1. ez da azaltzen zergatik *-r* > *-ø* gertatu den, euskaraz horrelakorik (cf. *gor*, *zor*, *lapur*, *haur*...) ez delarik; badira, noski, *-r* > *-ø* gutxi-gutxi batzuk (*iru*, *au*) mendebaldean baina ez ekialdean [*golde* orokorra da]) eta bada horientzat azalpen ezagunik.
2. dagozkien kognatuetan ez da herskari ahoskaberik *Z* eta *E*-z ohi legez;
3. hori gutxi balitz, ez zaigu ezer esaten *culter*-en akusatiboaz (*cultrum*), agian jatorri gisa desegoki iruditurik edo, nahiz ia % 100ean hori izan maileguen sorbide (ez nominatiboa); zeharbiz sartzeko ere (cf. errom. *cuitre*, etab.) hitz honek ez baitu aukera handirik, cf. *EHHE* s.v. *golde*.
4. ezta *golde* ‘goldez landa edo soroa garbitzeko, *gorritzeko ekintza*’-z ere;
5. ezta *-de* eta *-te*-ri buruz *urte*, *alde*, *galde*, *arte* eta beste hainbat hitz akaberaz eta biak batzen dituen Trasken Legezaz (ik. §6.3ko azken bigarren paragrafoa).
6. Aurreko guztiak erakusten du hitza ez datorrela latinetik, eta aldiz, *gor* / *gol*- alternantzia bera dela *abere* / *abel*-, *hari* / *al*- (*bazkari* / *bazkal*-, *euskara* / *euskal*-, *estari* / *estal*-, *bidari* / *bidal*-...) eta beste hainbat bikotetako forma aske / eratorpen alternantzian. Ik. *EHHE* s.v.⁴²

⁴² E1-ek gask./okz. *coltre* edo **colte* ere aukera bezala aipa litekeela dio; *possibilia non negabo* baina *entia non sunt multiplicanda praeter necessitatem*. Ezin interesgarriago iruditzen zait (kasu honetarako zein bestetarako) E1 berak aitortu bezala **colte* ez lekukotzea gaskoiz eta ezta *k*- edo *t*- duen aldaerarik ere *Z* eta Err.n. Bestalde, cf. *OEHko* «*Lur golde bat*» SP (sin trad.). «Arpent» Dv. «Fa-

b) *Sendo*. Lat. *exemptus*-etik ateratakotzat dakar Mitxelenak (FHV 82) baina hori onartzeko zenbait xehetasun estali edo baztertu behar:

1. lat. *s* → eusk. *s* [s] dugu eta ez mailegu zaharretan ohiko den *z* [s] (cf. *gauza*, *baradizu*, *zeküriü*, *zorü...*) eta ez *soro*, *para(d)iso*, *kausa*, *soka...* berriagoetan legez.⁴³
2. Bestalde, hitz horrek ez zukeen (cf. Corominas & Pascual, s.v.) lexiko oso berezitukoa izan beharko, ez garairik zaharrenetan mailegatua izan zitekeen lexiko arruntekoa.
3. Batez ere, ez genuke ezagutu beharko ondare zaharreko *sen* erro autonomoa, akitanieraz geroz eratorri eta konposatu ugarri dituenak: *seni*, *seme* (< *senbe*), *senhar*, *senhide*.
4. Halaber, komeniko litzateke *-do* alomorfo (cf. *-to/-o*) eta atzizkiaren berririk ez izatea (cf. Lakarra 2013a), nahiz “completive” eta adjektibogilea dela aspaldi susmatu (cf. Trask 1997).

c) *omen*: Ez dirudi hitz honen forma eta distribuzio bereziak ikertzaileak hitzaren diakroniaz eta jatorriaz ikertzera eraman dituenik, analisi sinkroniko hutsera mugatuko balitz bezala hartaz jakin genezakeen (edo jakin behar genukeen) guztia.

Esan izan den gutxia aski alferrikoa da: lat. *ōmen* ‘iragarpen’ ei dugu sorburua (hara bidaltzen gaitu Lhandek s.u.) eta horren euskarazko ordaina gramatikalizazioaren abiapuntu. Alabaina, lat. akus. *ōminem*-etik ***omihe* (cf. **areha*) eta ***homî(ê)/**omî(ê)* itxarongo genuke; ez da horien arrastorik, ordea, eta ez da harritzeko, erromantzeetan ere ez baitu aztararik utzi (ErMe-k asmatutzat edo dute). Are berri okerragoak ematen dizkigu OEHk *omen*-en aldaerez: argi da izena

nega de tierra. *Golde bat lur* (BNc), trozo de terreno que con una pareja de bueyes se puede labrar en un día» A. «28 áreas» A *Apend.* Cf. *infra* GOLDE-LUR”, *-de*-ren aditz-izen izaera bistakoagoarekin (cf. *gal-de*, *ol-de*, etab.)

⁴³ E1-en ustez *siku* bere bokalismoogatik oso zaharra izan ahalko litzateke; ordea, bada ia mende erdi, Mitxelenak (1974: 200) horren edo *gisu* eta *pizu*-ren liluraren ahulezia beren-beregi markatu zuenetik; are gehiago, *siku*-z “puede deber la vocal cerrada a la sibilante apical” esatera ere iritsi zen hortxe bertan.

baino zahar eta zabalduagoa dela partikula, batez ere honen aldaerak (*emen*, *umen*, *ümen*, *emon*) kontuan hartuaz. *Emon* eta *ümen*-era **emon*-etik abia gaitzke: dohainik, 1. kasuan (**emon* > *emon*) eta merke bezain eraginkor 2.ean (**emon* > **emun* > *emün*, cf. **e-non* > **enun* > *ehun* / *Z ehün*). Erdialdeko *omen* (eta hortik *emen*) azaldu behar da eta hori, *emon*-etik *omen*-etik bezain erraz izateaz landa, merkeago ere dateke, ez baita ezer asmatu beharrik: hor da *emon* (< **e-bon*) aditza Bn nahiz Er.n, euskal eremuaren bi muturretan. *Omen*-en jatorri eta distribuzioa zehaztu nahiak familiatik atera eta *ei* (< **e-nün*) sinonimoaz arduratzera garamatza (orobat, eki. *ehi-ra*); erkaketak bata-besteia argitzen du, are gramatikalizazioa bezalako esparru ustez ezagunean. Bidenabar, ez dirudi hitz familien azterketaren interes larria haren esparrura (eta alderantziz) zabaldu denik, baina gure jardun mugatuaren araberata besteari kalterik ez lekarkioke.

6.6. Kognatu sareak hedatuaz

Australiako hizkuntzen azterketa diakronikoa asko aurreratu da azken hamarkadetan eta horietako zenbait familia urrundu dira (beren ikerketa, hobe) 1950, 1970 edo are geroagoko irudi hitsetik; cf. Bower & Koch 2004. Halere, bertako ikertzaile nagusi den Koček dioskunez, etimologiagintzak hurbilegi darrai harako glotokronologia-saioetarako prestatu zerrenda soilegiatarik. Aldaketa fonikoa aztertzeke edo hizkuntzen erkaketa edo are aitzinhizkuntzaren berreraiketa hasteko inoiz erabilgarri izan arren, metodo honek aldaketa semantiko, lexiko eta morfosintaktikoa ere saihesten ditu (Koch & Hercus 2013: 34) eta hizkuntza horien gramatika historiko eta konparatuaren oinarriko froga eta datuak oso txiro egiten. Sinonimia hertsia, gainera, erdi-kognatuak albo batera uzten ditu, eratorri eta konposatuak ez baititu bere langaitzat; alabaina, Kurylowicz eta besteri esker, badakigu horiek gordetzen dutela hainbat forma, adiera, funtzio... zaharragoren aztarna eta zantzurik: *Olagibel*-en *gibel* ‘atze’ zentzuan mendealdean galdua da aspaldi baina cf. RS 239 [= 466] *Quibel ecachari*, *bular aldi onari* (“Espaldas a la tempestad, pecho a la buena sazón”, vs. 141 *Gui-*

beleco on areco gasso “Lo que es bueno para el hígado dañoso para el baço”, ik. EHHE s.v.); *ardatz* hitzaren 2. zatiari dagokionez, cf. *latz* < **datz*; -*ro* atzizkia ere (*astiro, garbiro*) *oro* ‘gutziz’-etik dator (partikula bera ere bada RSn), etab.

Koch eta Hercusen ideietan inspiraturiko ikerketa zabala geure beharretara egokiturik, onuragarri izan liteke hitz jakin baten aldaerak soilik erkatu beharrean hitz horren familia osoa kognatu argi zein ilunagoak ere erabiliaz aztertzea, askoz aukera gehiago baikenuke forma bakoitzaren eta familia osoen fonologia, morfologia edo semantika nahiz beren hedadura zaharra asmatzeko, dela sisteman, dela hizkuntzaren geografian.

Proper etymological study consists of finding and listing all cognates, regardless of whether they are equivalent semantically or have shifted their meaning, whether they are whole words or just parts of words, and whether their relationships is transparent or obscure. Special effort may be required to find the non transparent, obscure cognates, which may survive only in a rather disguised form (...) Our aim in this paper is to explore the differential implications for comparative reconstruction of using obscure cognates rather than restricting one’s attention to obvious (especially semantically equivalent) cognates (Koch & Hercus 2013: 35-6).

Our experience suggests that the stock of cognate sets among Australian languages can be greatly increased if comparativists look beyond the obvious cognates. We suggest that this is not only desirable but necessary if we are to gain a true picture of how the languages are related historically. An adequate stock of cognates is required to establish (a) which subgroups of a language family (such as Pama-Nyungan) contain reflexes of a given etymon, (b) to what level (protolanguage or early areal group) a given etymon is reconstructible, and (c) what is the proper genealogical classification of the languages. *Such a method, one which goes beyond the obvious comparisons and seeks out the obscure cognates for the light they can provide on the linguist past.* (Koch & Hercus 2013: 50; etzana gurea [JAL])⁴⁴

⁴⁴ E1-ek Koch eta Hercusen metodologia Blevinsenarekin berdintzen du baina gehiegikeria honetaz ohartzeko aski da Kochen australiar hizkuntzei buruzko lan eskutada bat ezagutzea, biblio-

Arestiko lan batean (Lakarra 2018b), hainbat etimologiaren oinarriak jarri ziren zuzenean eta beste askorenak zeharka, *ban-/bar-/bal-* familiara bilduaz euskal hiztegieta (eta azken mendeetako euskaldunen gaitasunean) zein bere aldetik, ardi herratu bezala zen hitz asko. Aztertu edo ikuskatu diren erroetan lortutako emaitzak itxaron baino oparoago suertatu dira, eta eginkizun dugu etorkizunerako hemen erabilitako C-/ø- txandaketan miaketa –nahiz T-/h-/ø- edo beste batzuk–, eta hitz-eraketako -n/-r/-l alomorfoak ezarriaz (eta -h edo -ø ere dagokionean)⁴⁵ euskal lexikoi zaharraren erraitan barrena sistematikoki hedatuz.

7. Emaitza eta ondorio zenbait

*EHHE-200*ren asmoa noizbait, –ahal bezain sarri–, garatu nahi genukeen **Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*-ren oinarriak ezartzea izan da, horretarako bere egituraren zertzelada nabarmenenak (modularra, familiaka antolatua) eta irizpide funtsezkoak (etimologia gramatika historikoaren alderdi nagusi eta ia sinonimo legez) finkatuaz. Egitasmo hau, horrenbestez, hizkuntzalaritza diakronikoa eta filologia gurutzatzen diren puntuan kokatzen da eta bietako hatsarre eta analisi-garapenen zordun da. Ezingo zen antzekorik abian jarri euskalaritzan “Mitxelena paradigma” izan ez balitz, hura gabe borondate oneko (eta ez hainbesteko) zaletuen eskuetan jarraitu balu, euskararen jatorri ustezko bezain ustelen bila.

Mitxelena paradigmaren eta gero ere, jardun etimologikoa unean uneko “teoria linguistikorik hoberenari eta filologia zehatzenari” lotua da, hark eta Meilletek hainbat aldiz aldarrikatu bezala. Berreraiketa berriak egiteko edo lehengoak berriztatzeko behar den informazio garrantzitsuen gehiketa

grafiako Koch & Bowern (arg.) bildumako hainbat (Bowern & Koch 2004 eta Koch 2004 tartean) eta haren IE hizkuntzetako formazioa. Blevinenaz oso bestelako sendotasuneko da haren ikerketa, nahiz helburuen, nahiz metodologia segurtasunaren aldetik (cf. Blust 2015eko egurra tonga-austronesierari buruzko proposamenaz). Nolanahi ere, “bere fruituetarik ezagutu ahalko da zuhaitza” *Liburuak* dioen bezala.

⁴⁵ Eman bekio so arin bat *EHHE200n zur-en* familia erraldoiari, baina gehiagorekin ere egin liteke antzeko saiork.

konparatiboki mugatu edo urria da: aspaldi urratu ziren aliritziko ahaidetasun aurkikuntzen lilurak, metodo konparatua euskalaritzan zabaldu ahala eta mailegaketaren ikerketa aberats eta aberasgarriaren etekinak agortzear zirela Mitxelenak duela mende erdi markatu zenez, filologia metodo zehatzago eta analisi ikuspegi berrietara jo dugu, eta horrela beharko etorkizunean ere alorra agortuko ez bada.

Hizkuntzalaritza diakronikoaren garapen orokorrean bilatu ditugun bide berriek gure etimologia ikerketei –tradizio aurreratuagoetan bezala– nola eragin dioten edo diezaioketen erakutsi nahi izan dugu aurkezpen honetan: Erroaren Forma Kanonikoaren azterketa eta honen hedadurak (§5), Etimologia Formalerako lortu hobekuntzak (§5.4) eta Hitz Familiak (§6.2); Gramatikalizazioa (§6.3); Etimologia konparatua eta motibazioaren analisisia (6.4) ... funtsean hor baita, ohi legez, aurrerapen esanguratsuak izateko aukera nagusia. Hemen, labur beharrez aipatu ez arren, ez ditugu ahaztu nahi, noski, Mitxelenaren ondoko filologiaren emaitzak (cf. Lakarra 2019a) eta, halaber, ezinbesteko izan zaizgu aurreko paradigmaten indargune garatugabeak osatzea eta hedatzea (§6.1), honen oinarri nagusiak (4.1) eta emaitza sendo eta aberatsak aztertu eta aitortu ondoren (4.2). *EHHE* hau eraberritzen etaosatzen jarraitzeko “Nola egin etimologia gehiago eta hobeak” (6.5) ere gogoratu nahi izan dugu, eta baita tartean “Kognatu sareak hedatzeak” (6.6) lukeen garrantzia ere.

Duela zenbait urte, 200 familia hautatu genituen langai (100 bat mailegatu eta beste hainbeste ondare zaharreko) eta egitura horri lotu gatzazkio, nahiz zorionez, –baina ez lan eta buruhausterik gabe–, kopuru horiek mantentzeko usu kide berriak sartu behar izan lehenagoko zenbaiten –gehienik ondare zaharrekoen–, ahaidetasun artean ezkutuak bistaratu ahala. 200 familia horietan 2600tsu sarrera eta azpisarrera bildu da, *EHHE*ren hitzaurrean ataletan mikro- eta makroegituraren deskribapenaren bidez azaldu moduan.

Analisi gutxi dira guttiz geureak; alabaina, bat ere ez soil inorengandik osotoro hartu edo ikasia. Ontzat edo baliagarritzat jotako etimologiekin ere, asko da aldaera, kronologia, dialekto-hedadura, protohistoria nahiz zertzelada formal edo semantiko... alderdi askotarik berri eta zehaztasunak gehitu ditugu (partikularzki protohistorian eta historia lekukotuaren garairik zaha-

rrenetan), sarri “azken” edo “benetako” analisi etimologikotzat genuena osatu, aldatu edo zalantzan jarri arte.

Hasierako Watkinsen hitz gogoangarrien izpiritutik inoiz baino hurbilago gara: ez genuke nahi *EHHE200* hau eta ez etorkizuneko **EHHE500* edo **EHHE1000* ere euskal hitzen edergailuzko hilkutxa polit huts izan litezen. *EHHE* euskararen bilakabidea ikertzeko (honen Gramatika Historikoa egiteko) lanabesa da, eta, hortaz, behin-behinekotasunean bizi behar du, ez betirako itxi eta beztidura ederretan bildua. Gaude dagoeneko antzemateko moduko aitzinamenduak lortu direla lexikoaren, fonologiaren, morfologiaren nahiz dialektologia diakronikoaren aldetik; hala nahi genuke, bederen. Haatik, uste dugu are gehiago dela horietan guztietan eta hizkuntzaren historia osoaren ikerketan lor litekeena hemendik aurrera *EHHE 200*en laguntzaz. Hori da bilatzen duguna gure maisu K. Mitxelenak urratu bideetan barrena, haiek berreginez eta aitzinatuz.⁴⁶

8. Bibliografia

AGUD, M. & A. TOVAR (1988-95). *Materiales para un diccionario etimológico vasco (A-orloi)*, Donostia: ASJUren Gehigarriak, 7 lib.

AIKIO, A. (2006). “On Germanic-Saami contacts & Saami prehistory”, *Soc. Finno-Ougrienne* 91: 9-55.

——— (2007). “Etymological Nativization of Loanwords: a Case Study of Saami and Finnish”. In I. Toivonen & D. Nelson (arg.), *Saami linguistics*. Amsterdam-Philadelphia: Benjamins, 17–52.

——— argitaratzeko, “Proto-Uralic”. In M. Bakró-Nagy et al. (arg.), *The Oxford Guide to the Uralic Languages*. Oxford U.P.

⁴⁶ Ohar lotsagabe bat amaierarako: ezaguna da araugileentzat etimologia ez dela 3. edo 4. mailako argudio ere, eta diakronia ikertzailearentzat kasuan kasuko araudia soilik ikergaitzat dela interresgarri; horregatik beragatik, on litzateke <h>-aren 1970etik 1980 bitarteko araugintzan izandako gorabeherak garai bereko eta ondoko fonologia diakronikoan izan aitzinamenduekin erkatzea. *OEH*-ren bidez lexikografia eta lexikologia historikoan izandako aurrerapenek araugintzan ekarri zutena are bistakoago da, noski, nahiz hainbat non sarriegi egitasmo horren benetako helburuak erabiltzaile zenbaitenekin nahasi ohi diren.

ARBELAITZ, J.J. (1978). *Las etimologías vascas en la obra de L. Michelena*. Tolosa: Kardaberatz.

ARIZTIMUÑO, B. (2011), *Antzinateko euskal idazkunik eta aitazineuskararen berreiriketa: corpusa, analisia eta ondorioak*. UPV/EHUko Master Tesi argitaragabea.

BAKKER, P. (2020). "Review. [J. Blevins] *Advances in Proto-Basque Reconstruction with evidence for Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis*", FLV 130: 563-592.

BAKRÒ-NAGY, M.Sz. (1992). *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system*. Studia Uralica 5, Wiesbaden: Harrassowitz.

BENGTSON, J. (2013). "Comments on "Evidence for Basque as an IE languages" by G. Forni", *Journal of Indo-European Studies* 41: 1-9.

——— (2014). "Burushaski and the Western Dene-Caucasian Language Family: Genetic and Cultural Linguistic Links", *Mother Tongue* 19: 181-222.

BENVENISTE, É. (1935). *Origines de la formation des noms en indo-européen*. Paris: Maisonneuve.

——— (1954). "Problèmes sémantiques de la reconstruction". Berr., *Problèmes de linguistique générale*. Paris: Gallimard 1966: 289-307.

——— (1969). *Le vocabulaire des institutions indo-européennes*. Paris: Minuit.

BERNARDO, P. de (2006). «Las lenguas célticas en la investigación: cuatro observaciones metodológicas», *Cuadernos de Filología Clásica. Estudios Griegos e Indoeuropeos* 16: 5-21.

BILBAO, G., GOMEZ, R., LAKARRA, J.A., MANTEROLA, J., MOUNOLE, C. & URGELL, B. (2020). *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa: I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitekia; II. Testua*. UPV/EHU, Leioa, 2 lib.

BLEVINS, J. (2007). «A long lost sister of Proto-Austronesian? Proto-Ongan, mother of Jarawa and Onge of the Andaman Islands», *Oceanic Linguistics* 46: 154-198.

——— (2018). *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for the Proto-IE-Euskarian hypothesis*. Routledge: N.Y.

BLUST, R.A. (1988). *Austronesian root theory: an essay on the limits of morphology*, Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

——— (2009). *The Austronesian languages*, Canberra: ANU.

——— (2015). «Some recent proposals concerning the classification of the Austronesian», *Oceanic Linguistics* 53: 300-391.

BOWERN, C. & H. KOCH (arg.) (2004). *Australian languages. Classification and the comparative method*, Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

——— (2004). “Introduction: subgrouping methodology in historical linguistics”, in Bower & Koch (arg.): 1-15.

CAMINO, I. et al. (arg.) (2020). *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. K. Zuzori gorazarre*, Bilbo: UPV/EHU.

CAMPBELL, L. (1988). “(Iruz.) *Language in the Americas* by J.H. Greenberg”, *Language* 64: 591-615.

——— (2011). “La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?”. In J.A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *2nd Conference of the Luis Michelena Chair / Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra / II. Congreso de la Cátedra Koldo Mitxelena*, Gasteiz: UPV/EHU: 23-40.

——— (2013). *Historical Linguistics, an introduction*. 3. arg. Cambridge: The MIT Press.

CASTAÑOS, F. (1979). *El euzkera (sic) y otras lenguas*, Bilbo: Foru Aldundia.

COROMINAS, J. & J.A. PASCUAL (1980-91). *Diccionario crítico-etimológico castellano e hispánico*, Madril, Gredos, 7 lib.

CHAKER, S. (1975). “L'apparement de la langue berbère”. Berr. in id, *Textes en linguistique berbère*. CNRS, Paris 1984: 232-245.

DIMMENDAAL, G.J. (2011). *Historical linguistics and the comparative study of African languages*. Benjamins: Amsterdam & Philadelphia.

DIXON, R.M.W. (1977). «Where have all adjectives gone?». Berr. in *Where have all adjectives gone? And other essays in semantics and syntax*, Berlin: Mouton de Gruyter, 1982: 1-62.

——— (1997). *The rise and fall of languages*, Cambridge: Cambridge U.P.

DONEGAN, P. (1993). «Rhythm and Vocalic Drift in Munda and Mon-Khmer», *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 16: 1-43.

——— & STAMPE, D. (2004). «Rhythm and the synthetic drift of Munda», *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*, Berlin-NY: Mouton de Gruyter: 3-36.

DURKIN, Ph. (2009). *The Oxford Guide to Etymology*. Oxford: Oxford U.P.

EGURTZEGI, A. & B. ARIZTIMUÑO (2019). “/f/-ren sarrera eta sorrera euskaran”, in I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots*. M.L. Oñederra irakaslearen omenez, Bilbo: UPV/EHU: 197–213.

ERNOUT, A. & A. MEILLET (1979). *Dictionnaire étymologique de la langue latine*, 4. arg, Paris, Klincksieck.

EPPS, P. (2006). “Growing a numeral system. The historical development of numerals in an Amazonian language family”, *Diachronica* 23: 259-288.

FRAJZYNGIER, Z. (1986). «From preposition to equational copula». *Berr.*, 2002, 233-50.

——— (2002). *Studies in Chadic morphology and syntax*. Louvain-Paris: Peeters.

FRELLESVIG, B. (2010). *A history of the Japanese language*. Cambridge: Cambridge U.P.

——— & J. WHITMAN (arg.) (2008). *Proto-Japanese. Issues and prospects*, Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

GALAND, L. (1984). “Le comportement des schèmes et des racines dans l'évolution de la langue: exemples touaregs” in J. Bynon (arg.), *Current Progress in Afro-Asiatic Linguistics: Papers from the Third International Hamito-Semitic Congress* (Amsterdam: J. Benjamins): 305-315.

GAMKRELIDZE, T.V. (1966). “A typology of Common Kartvelian”, *Language* 42, 69-83.

——— & V.V. IVANOV (1984). *Indo-European and the Indo-Europeans* [Errusierazko originalaren ingelesezko itzulpena] Mouton de Gruyter, Berlin & N.Y. 1995.

GAVEL, H. (1920). *Éléments de phonétique basque*, RIEV 12: 1-542.

GENEE, I. (2003). “An Indo-Europeanist in the Prairies: C.C. Uhlenbeck's work on Algonquian and Indo-European”, in *Papers of the 34th Algonquian Conference*, ed. H.C. (Winnipeg: University of Manitoba): 147-164.

GENETTI, C. (2008). "A note on the history of adjectival verbs in Newar", *Bulletin of the Society of Oriental and African Studies* 71:3, 475-492.

GEORG, S. & A. VOVIN (2003). «From mass comparison to mess comparison: Greenberg's "Eurasianic" theory», *Diachronica* 20: 331-362.

——— (2005). «Iruzkina: [J. Greenberg] *Indo-European and its closest relatives: the Euroasiatic language family, v. 2: The Lexicon*», *Diachronica* 22: 184-190.

GIL, D. (1986). «A prosodic typology of language», *FL* 20: 165-231.

GÓMEZ, R. (1994) «Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSOTik SOVra» in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*, Baigorri: Izpegi: 93-114.

——— (2013). «*Sobre el pasado de la lengua vasca-ren orainaz*», UPV/EHUko eskuizkribu argitaragabea.

——— J. GORROTXATEGI, J.A. LAKARRA & C. MOUNOLE (arg.) (2013). "Koldo Mitxelena" *Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU.

——— & K. SAINZ (1995). «On the origin of the finite forms of the Basque verb», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.): 235-74.

——— & J. ZULAIKA (2020). *El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito anónimo euskera-español*. Anejos de ASJU, LXXII.

GORROTXATEGI, J. (1984). *Onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo: UPV/EHU.

——— (1987). "Vasco-celtica", *ASJU* 21: 951-959.

——— (1998). *Euskararen historiaurreaz zenbait gogoeta. Algunas reflexiones sobre la prehistoria de la lengua vasca*, 1998-99 ikasturte hasierako hitzaldia, Gasteiz, UPV/EHU.

——— (2002). "Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara", *XV Congreso de Estudios Vascos: Ciencia y Cultura y redes telemáticas*, Donostia, SEV: 103-114.

——— (2013). «Sobre *Lenguas y protolenguas*», in Gómez *et al.* (arg.): 613-642.

——— (2018). *Opera Selecta. I. Aquitanica / Akitaniera*. B. Urgell eta J. M. Vallejo (arg.), "KM Katedraren Argitalpenak", Gasteiz: UPV/EHU.

——— (2019). «Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara», *Euskera*, 64, 2, 2: 1077-1102.

——— & J.A. LAKARRA (2001). «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco», in F. Villar & M.P. Fdez Álvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamanca: Univ., 407-438.

——— (2013). «Why Basque is not, unfortunately, an IE language?», *Journal of Indo-European Studies* 41, 203-237.

HAAS, M.R. (1969). *The prehistory of languages*. The Hague: Mouton.

HAMP, E.P. (1998). «Some draft principles for classification», in J. Salmons & B. Joseph (arg.), *Nostratic. Sifting the evidence*, Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins: 13-15.

HEINE, B. & KUTEVA, T. (2002). *World lexicon of grammaticalization*. Cambridge: Cambridge U.P. Bada 2019ko edizio arrunt zabaldua ere.

HOZ, J. de (2010-11). *Historia Lingüística de la Península Ibérica en la Antigüedad*. I. Preliminares y mundo meridional prerromano. II. El mundo ibérico prerromano y la indoeuropeización. Madril: CSIC.

HUALDE, J.I. (1997). «Aitzineuskararen leherkariak», *ASJU* 31: 411-424.

——— J.A. LAKARRA & R.L. TRASK (arg.) (1995). *Towards a history of Basque*. Amsterdam: Benjamins.

IGARTUA, I. (2001). «La aspiración en vasco: ensayo tipológico y diacrónico», *ASJU* 35:1, 185-213.

IRWIN, M. (2011). *Loanwords in Japanese*. Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

JACKSON, K. (1953). *Language and history in Early Britain. A chronological survey of the Brittonic languages 1st to 12th c. AD*. W. Gillies-en sarrera, 1994ko 2. arg. (Four Courts Press, Dublin).

JANHUNEN, J. (1997). «Problems of primary root structure in Pre-Proto-Japanic», *Central Asian Studies* 2: 14-30.

——— (2007). «The primary laryngal in Uralic and beyond», *Mémoires Soc. Finno-Ougr.* 253: 203-227.

KALLIO, P. (2015). «The language contact situation in prehistoric Northeastern Europe». In R. Mailhammer et al. (arg.), *The linguistic roots of Europe*: 77-102. Copenhagen: Museum Tusculanum Press.

KARLGREN, B. (1934). «Word families in Chinese», *Bulletin of Museum of Far Eastern Antiquities* 5: 9-120.

KOCH, H. (1997). "Comparative linguistics and Australian prehistory", in McConvell & Evans (arg.), *Archaeology and linguistics: Aboriginal Australia in global perspective*. Melbourne: Oxford U.P., 27-43.

——— (2003). "Morphological reconstruction as an etymological method". In B. J. Blake & K. Burridge (arg.), *Historical linguistics 2001: The 15th International Conference on Historical Linguistics, Melbourne, 13-17 August 2001*: 271-291. Amsterdam & Philadelphia: Benjamins.

——— (2004a). "A methodological history of Australian linguistic classification", in Bower & Koch (arg.): 17-60.

——— (2004b). "The Arandic subgroup of Australian languages". In Bower & Koch (arg.): 127-150, 575-580.

——— & L. HERCUS (2013). "Obscure vs. transparent cognates in linguistic reconstruction", in R. Mailhammer (arg.), *Lexical and structural etymology. Beyond word histories*. Boston-Berlin: Mouton de Gruyter: 33-52.

KRISHNAMURTI, BH. (2001). *Comparative Dravidian linguistics. Current perspectives*. Oxford U.P.

LAFON, R. (1943). *Le système du verbe basque au XVIème siècle*. 2. arg. Donostia: Elkar 1980.

——— (1948). "Sur les suffixes casuels *-ti/-tik* en basque", in Lafon 1999, 199-207.

——— (1950). «Remarques sur le racine en basque», BAP 6: 303-308.

——— (1951-52). «Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiennes», *Word* 7: 227-244 eta 8: 80-94.

——— (1999). *Vasconiana*. IKER 11. Haritxelhar, J. & Xarritton, P. (arg.). Bilbo: Euskaltzaindia.

LAKARRA, J.A. (1985). «Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan», ASJU 19: 9-50.

——— (1993 [2017]). XVIII. mendeko hiztegi gintzaren etorkiez, Tesia, UPV/EHU. UEUren arg. digitala.

——— (1995). "Reconstructing the Pre-Proto-Basque root". In Hualde, Lakarra & Trask (arg.): 189-206.

——— (1997a). «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», ASJU 31: 447-535.

——— (1997b). «Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa», *ASJU* 31: 537-616.

——— (1998). “Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa”, *Uztaro* 25: 47-110.

——— (1999). “Ná-De-Ná”, *Uztaro* 31: 15-84.

——— (2002). “Etymologiae (proto)uasconicae LXV”. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta. Festschrift for R.P.G. de Rijk* ASJUren Gehigarriak 44: 425-442.

——— (2003 [2008]). “Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción”, *ASJU* 37: 261-391.

——— (2006a). «Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica», *Oihenart* 21: 229-322.

——— (2006b). «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo», in id & J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque & Historical Linguistics in memory of R.L. Trask – R.L. Trasken oroitzapenetan. Ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* (ASJU XLI/1-2): 561-621.

——— (2008). “Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)”, in X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Omenaldia Patxi Goenagari*. ASJUren Gehigarriak LI: 451-490.

——— (2009a). “Adabakiak /h/-aren balio etimologikoz”, *ASJU* 43: 565-596.

——— (2009b). “Aitzineuskara berreraikiaz: zergatik ezkerria”, *Euskera* 54: 17-98.

——— (2009c). “ $*h_3/*h_2 > h_1$ eta horiei datxezkien zenbait fenomeno”, *Lapur-dum* 13 ([2013]): 247-272.

——— (2010). “Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica”, *Veleia* 27: 191-238.

——— (2011). «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio», *FLV* 113: 5-114.

——— (2012). «Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan», in I. Igartua (arg.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 17-74.

——— (2013a). “Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistiko diakronikoa, kronologia eta gramatikalizazioa”. In R. Gómez, J.A. Lakarra, eta C. Mounole (arg.), *3rd Conference of the Luis Michelena Chair / Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra / III. Congreso de la Cátedra Koldo Mitxelena*, Gasteiz: UPV/EHU: 275-324.

——— (2013b). «Monosyllabic root theory and the reconstruction of Proto-Basque: some aspects and consequences», in Mtnez Areta (arg.): 173-221.

——— (2013c). “Gramática histórica vasca o vasco-iberismo”, *Palaeohispanica* 13: 567-92.

——— (2014). «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz», in I. Epelde, *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. ASJU-ren Gehigarriak 60, Leioa. UPV/EHU: 155-241.

——— (2015a). «Hiru hasperen haboro», in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Saillkideen omenaldia H. Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: UPV/EHU: 349-378.

——— (2015b). «*Sarasola* eta (aitzin)euskar(ar)en geruzak», in B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *I. Sarasola. Gorazarre. Homenatge. Homenaje* Leioa: UPV/EHU: 419-439.

——— (2016). “Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologikoaren bide berriak”, in G. Aurrekoetxea et al. (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, Leioa: UPV/EHU: 175-192.

——— (2017a). “Basque and the reconstruction of isolated languages”, in Campbell, L. (arg.), *Languages isolated*, 59-99. NY: Routledge.

——— (2017b). “18. mendeko hiztegitzaren etorkiez. 25 urte geroago”, in 1993 [2017]: i-xiv.

——— (2018a). “Prehistoria de la lengua vasca” in J. Gorrochategui, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Historia de la lengua vasca*. Gasteiz: EJ: 23-244.

——— (2018b). “CVCren ertzetako alternantziak eta aitzineuskarako hitz-familien azterketarako hatsarriak: *ban/bar-/bal*-en zirriborroa”, ASJU 52: 437-486.

——— (2019a). “EHHE-ren Oinarriak”, in Lakarra, Manterola & Seguro, xv-cxl.

——— (2019b). “Bon/bor-/bol- familiaren berreraiketarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez”. In A. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M.L. Oñederra irakaslearen Omenez*. Gasteiz: UPV/EHU: 377-395.

——— (2019c). “Euskal Gramatika Historikoa: 1970tik hona eta harago”. *Fon-tes-en* 50. Urteurreneko hitzaldi argitaragabea.

——— (2020a). “Berreraiketa zabalduaz eta familia erroiztueta hitz arrotuak senidetuaz: Banen urruneko hondar batzuk”, in Camino et al. (arg.): 335-66.

——— (2020b). “Nombres de parentesco y nombres relacionales en (proto)-vasco”, in M^a J. Martínez Alcalde et al. (arg.), *El español y las lenguas peninsulares en su diacronía: miradas sobre una historia compartida. Estudios dedicados a M^a T. Echenique Elizondo*, Valencia: Tirant Humanidades/Univ. Neuchatel: 329-62.

——— prestatzen-a, “Zenbait ohar supletibismoaz eta diakroniaz: aditz irregularrak eta datibo laguntzaileak”.

——— prestatzen-b, “Cronología y periodización del protovasco”.

——— prestatzen-c, “IS-tik AS-ra eta gibelera: Hainbat arrazoi ErIz-ak berre-raikitzeke”.

——— J. MANTEROLA & I. SEGUROLA (2016). “Los estudios etimológicos vascos: historia y perspectivas”, in M. Quirós (zuz.), *Etimología e historia en el léxico del español. Estudios ofrecidos a J.A. Pascual*. Madrid / Frankfurt, Iberoamericana / Vervuert: 845-871.

———, ———, ——— (2019). *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa -200*. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— & I. RUIZ ARZALLUZ (arg.) (2011-12). *Luis Michelena. Obras Completas*, Donostia-Leioa: ASJUren Gehigarriak, 15 lib.

de LAMBERTERIE, Ch. (1998), «Sur la loi de Meillet», *Academie des Inscriptions* 142: 881-905.

——— (2000). “Problemes sémantiques de la reconstruction en IE”. In François, J. (arg.), *Théories contemporaines du changement sémantique* (Mémoires S.L.P., NS9): 109-134. Leuven: Peeters.

MANTEROLA, J. (2015). *Euskararen Morfologia Historikorako: Artikuluak eta Erakusleak*. Doktorego tesia, UPV/EHU.

——— (2019). “The contribution of medieval data to the reconstruction of Proto-Basque: lexicon and morphology”. *Recent Advances in Comparative Ling. Reconstruction*. SOAS, Londres, 3/27ko hitzaldi argitaragabea.

——— (2020). “Aportaciones del vasco medieval a la reconstrucción del léxico protorromance”, *ZfRPh* 136: 1-33.

——— (2021). “Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*: etorkizunari begirako aurkezpen bat”, in *Euskera* 2019, 64, 2, 2: 1059-1076.

——— & BASTARDAS, R. (2020). “Pour un traitement digne du 21e siècle des emprunts du basque au protoroman au DÉRom”, in E. Buchi & W. Schweickard (arg.) *Dictionnaire Étymologique Roman (DÉRom)* 3: 217-242.

MARTINET, A. (1950). «De la sonorisation des occlusives initiales en basque». Berr., *Économie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique*, Bern: Francke, 1955: 370-88.

MARTINEZ ARETA, M. (2006). *El consonantismo protovasco*, doktorego tesia, UPV/EHU.

——— (arg.) (2013). *Basque and Proto-Basque*, Frankfurt: Peter Lang.

MATISOFF, J. (1990). «On megalocomparison», *Language* 66: 106-120.

——— (2003). *Handbook of Proto-Tibeto-Burman*, Berkeley: U.P. of California.

MEILLET, A. (1925). *La méthode comparative en linguistique historique*, Paris. Berr. 1970.

MITXELENA, K. (1949). «Notas de gramática histórica vasca». Berr., OC VIII, 641-44.

——— (1950). «De etimología vasca», Berr., OC VIII: 645-658.

——— (1951). «La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de A. Martinet». Berr., OC VII: 33-46.

——— (1954a). «De onomástica aquitana». Berr., OC, V: 197-243.

——— (1954b). «Notas sobre algunos pasajes de los RS de 1596», Berr., OC XI: 131-39.

——— (1954c). “Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca”. Berr., OC 10: 343-364.

- (1954d). “La posición fonética del dialecto vasco del Roncal”. Berr., OC IV: 611-647.
- (1956). “La lengua vasca como medio de conocimiento histórico”, Berr., OC X: 369-389.
- (1957a). “Las antiguas consonantes vascas”. Berr., OC VII: 57-91.
- (1957b). «Basque et roman». Berr., OC VIII: 601-613.
- (1958). «Introducción», [N. Landuchio. *Dict. Ling. Cantabrigiae (1562)*]. Berr., OC XII: 202-232.
- (1961-77). *Fonética histórica vasca*. Berr., OC V.
- (1963). *Lenguas y protolenguas*. Berr., OC I: 1-98
- (1964). *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berr., OC V: 1-115.
- (1968). «L’euskaro-caucasien». Berr., OC IV: 171-192.
- (1970 [1965]). *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Berr., OC VIII: 29-191.
- (1970). “Nombre y verbo en la etimología vasca”. Berr., OC VII: 235-267.
- (1971). “Toponimia, léxico y gramática”. Berr., OC IV: 171-192.
- (1973). *Apellidos vascos*. Berr., OC IX: 1-235.
- (1974). “El elemento latino-románico en la lengua vasca”. Berr., OC V: 305-336.
- (1977). “Notas sobre compuestos verbales vascos”. Berr., OC VII: 269-300.
- (1979). «La langue ibère». Berr., OC III: 137-155.
- (1981). «Lengua común y dialectos vascos». Berr., OC VII: 517-543.
- (1981b). «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak». Berr. OC XIII: 211-231.
- (1981c). “Euskal literaturaren kondairarako oinarriak”. Berr., OC XIII: 233-246.
- (1984). «Ad experiendum». Berr., OC XI: 381-389.
- (1986). «Contra *Lekobide*». Berr. OC XI: 229-250.
- (1987). “Baskisch = Hispanisch oder = Gallisch?”. Berr., OC V: 177-195.

——— BELOQUI, J., ELOSEGUI, J., SANSINENEA DE ELOSEGUI, P. (1953). “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”. Berr., OC VII: 571-608.

——— & I. SARASOLA (1987-2005). *Orotariko euskal hiztegia - Diccionario general vasco*, Bilbo, Euskaltzaindia.

OC (Mitzelena) = Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), 2011-12.

ORDUÑA, E. (2005). “Algunos posibles numerales en textos ibéricos”, *Palaeohispánica* 5: 491-506.

——— (2006). *Segmentación de textos ibéricos y distribución de los segmentos*. Tesi argitaragabea, UNED.

PAWLEY, A. (2006). “Where have all the verbs gone? Remarks on the organisation of languages with closed verb classes”. Rice Univ.; argitaragabea.

POST, M. W. (2006). «Compounding and the structure of the Tani lexicon», *Linguistics in the Tibeto-Burma Area* 29: 40-60.

——— (2009). «Prosodic and typological drift in Austroasiatic and Tibeto-Burman: against «Sinosphere» and «Indosphere»». *42nd Int. Conference on Sino-Tibetan*, James Cook Uni., esk.

REGUERO, U., (2019). *Filologia eta dialektologia: Goi- nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak*. ASJU-ren Gehigarriak, UPV/EHU.

REY, A. (zuz.) (2006). *Dictionnaire historique de la langue française*. Paris: Dictionnaire Le Robert [1. arg. 1992].

RINGE, D.A. (2003). «Internal reconstruction». *The Handbook of Historical Linguistics*, ed. by B.D. Joseph and R.D. Janda, 244–261. Oxford: Blackwell.

SAGART, L. (1999). *The roots of Old Chinese*. Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

——— & XU SHIXUAN (2001). “History through loanwords: the loan correspondences between Hani and Chinese”, *Cahiers de Linguistique de l’Asie Orientale* 30: 3-54.

SALABERRI, P. & L.M. ZALDUA (2019). *Gipuzkoako herrien izenak: lekukotasunak eta etimologia*. Euskaltzaindia.

SARASOLA, I. (1997). “Euskal hitz altxorraz”, ASJU 31. 2: 617-42.

SATRUSTEGI, J.M. (1997-99). «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena», FLV 29: 241-264; 29: 77-96; 30: 297-328; 30: 429-468; 31: 109-134, 459-482; 32: 81-109, 441-466; 34: 323-352.

SCHUH, R. G. (2013). «Word families in Hausa», in O.-M. Ndimele et al. (arg.), *Language, literature and culture in a multilingual society. A festschrift for A. Rasheed*, Port Harcourt: M. & J. Grand Orbit: 579-598.

——— (2017). *A Chadic Cornucopia*. Ed. by P. Newman. eScholarship, California Digital Library: Oakland, CA.

SZEMERÉNYI, O. (1962). «Principles of etymological research in the IE languages». Berr., *Scripta Minora*, J.P. Considine & J.T. Hooker (arg.), Innsbruck 1987: 41-77.

TEIL-DAUTREY, G. (2008). “Et si le proto-bantu était aussi une langue... avec ses contraintes et ses déséquilibres?”, *Diachronica* 25: 54-110.

THOMASON, S. G. (1993). “Copying with partial information in historical linguistics”. In Aertsen, H. & Jeffers, R. (arg.), *Historical linguistics* 1989: 485-496. Amsterdam: Benjamins.

TRASK, R.L. (1977). “Historical syntax and Basque verbal morphology: two hypotheses”. In Douglass, W.A. et al. (arg.), *Essays in honor of J. Bilbao*: 203-217. Reno: Desert Research Inst.

——— (1985). “On the reconstruction of Pre-Basque Phonology”, in Melena, J.L. (arg.), *Symbolae L. Mitxelena Septvagenario Oblatae*, II, 885-91. Gasteiz: UPV/EHU.

——— (1996). *Historical Linguistics*. Londres: Arnold.

——— (1997). *The history of Basque*. Londres, NY: Routledge.

——— (1998). “The typological position of Basque: then and now”, *Language Sciences* 20: 313-324.

——— (2008). *Etymological dictionary of Basque, ed. for web publication by M.W. Wheeler*. Sussex.

UGARTE, A. (2019 [2021]). «Luis Michelena (Koldo Mitxelena) y la creación del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”», *ASJU* 53, 1-2: 1-38.

UHLENBECK, C.C. (1942). «Les couches anciennes du vocabulaire basque», *EJ* 1 [1947]: 543-581.

ULIBARRI, K. (2013). “External History. Sources for Historical Research”. In Mtnez Areta (arg.): 89-117.

——— (inprimategian). *Dotrinazko Sermoitegia (~1780). Ikerketa eta edizioa*. ASJU-ren Gehigarriak, UPV/EHU.

URGELL, B. (1997). “Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca”, *ASJU* 31: 643-85.

——— (2000). *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. Gasteiz: UPV/EHU, tesi argitaragabea.

——— (2000b). “Euskal edizioen historiaz (I): 1936 arteko ediziozintza”, *Euskal testuen historiaz eta edizioaz* (I), UPV/EHUko Udako Ikastaroetako hitzaldia (2000/07/04).

——— (2004). «Etimologia eta neologia Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzean*», *Lapurdum* 9: 299-310.

——— (2020). “Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenaz” in Camino *et al.* (arg.). 701-736.

URRESTARAZU, I. (2021). “Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz”. UPV/EHUko MALa.

VAN DER VOORT (2009). “The contribution of C.C. Uhlenbeck to Eskimo-Aleut linguistics”, *Études / Inuit / Studies* 32, 2: 85-105.

WATKINS, C. (1965). “Latin *nox* ‘by night’: a problem in syntactic reconstruction”, in Heinz, A. *et al.* (arg.), *Symbolae Linguisticae in honorem G. Kurylowicz*, Wrocław. Berrarg. 1994: 351-358.

——— (1984). “L’apport d’É. Benveniste à la grammaire comparée”, in Serbat, G. (arg.), *Benveniste aujourd’hui*, I, 3-11: Louvain: Peeters.

——— (1990). “Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgement”, in Ph. Baldi (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-N.Y.: 289-304.

——— (1994). *Selected Writings: I. Language and Linguistics; II. Culture and Poetics*. Oliver, L. (arg.), (2 lib.). Innsbruck: Innsbrucker Beiträge zur Sprachwissenschaft.

——— (2000). *The American Heritage dictionary of IE roots. 2th ed.* Boston-NY: Houghton Mifflin Co.

ZULOAGA, E. (2020). *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. UPV/EHUko tesia.

——— (2021). “Ibilaldia euskal klasikoen ediziozintza modernotik (1840-2020)”. Inprimategian.